# ZAINTZEN DUTEN EMAKUME BASERRITARRAK

Pertsonak, Lurra, Lurraldeak Eta Planeta

# MUJERES BASERRITARRAS CUIDANDO

Personas, Tierra, Territorios Y El Planeta



*Koordinazioa / Coordinación por **EHNE- Bizkaia***
*Idazketa eta ikerketa, hitzen ereintza eta joskera / Labores de escritura, investigación, siembra e hilado de palabras por **Mar Garrote.***
*Hazien, hitzen eta ideien uzta, landako ikerketa / Recolección de semillas, palabras e ideas, investigación de campo por **Amets Ladislao.***
*Lorezaintza eta uztaren berrikuspena / Jardinería y revisión de la cosecha por **Adelaida González.***
*Itzulpena / Traducción por **Iñigo Gallastegi.***

*Eskerrik asko ereintza hau lagundu eta eztabaida, hausnarketa eta elkarrizketetan parte hartu duten emakume baserritar guztiei.*
*Agradecemos y reconocemos a todas las mujeres baserritarras que han nutrido esta siembra, que han participado y aportado en discusiones, reflexiones y entrevistas a lo largo del cultivo de las palabras.*
*Diseinua eta ilustrazioak / Diseño e ilustraciones por **Torontile.***

***Euskal Herria 2023***

*Informazio gehiago, hemen: **https://www.ehnebizkaia.eus/eu/***
*Mas información: en la web: **https://www.ehnebizkaia.eus***

*Bertan honako lan hau doan deskargatzeko aukera dago, baita honen osagarri diren beste dokumentu batzuk ere.*
*Para descargar la publicación de modo gratuito online.  Y otros documentos que complementa.*

*Lan honek Creative Commons Aitortu (by) lizentzia du: baimenduta dago lan hau ustiatzea, baita merkataritza xedetarako ere, baldin eta lanaren egilea aitortzen bada; eta lan honetan oinarrituta beste lan batzuk egitea eta banatzea inolako murrizketarik gabe.*
***Lan honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantzamendua izan du.***

*Esta obra está bajo licencia Creative Commons Reconocimiento (by): Siempre que se cite la autoría, se permite cualquier explotación de la obra, incluyendo una finalidad comercial, así como la creación de obras derivadas, la distribución de las cuales también está permitida sin ninguna restricción.*

***Financiado por: Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo***

BIZKAIA ehne euskal herriko nekazarien elkartasuna

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA — AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

Zaintza Lanei Buruzko Hausnarketa Kolektiboak

Reflexiones Colectivas Sobre Los Cuidados

# AURKIBIDEA


1. HAZIAK, HASIERA

Zertarako Gida Hau? -6-

Emakume* Baserritarrak* Protagonista -8-

Metodologia Eta Esker Onak -14 -

2. TESTUINGURUA ERROTIK ULERTZEA

Esparru Globala -16-

Tokiko Esparrua -18-

Lege Esparrua -20-

Hizkuntza Esparrua -20-

Nola Mantentzen Da Gaur Egungo Elikadura-Sistema? -22-

3. LUR HARTU: EMAKUME BASERRITARRAK ETA ZAINTZA LANAK

Emakume Baserritarrak, Lan Produktiboa Eta Erreproduktiboa -26-

**Baserriko bizitzaren eraldaketa -26-**

**Baserriko eta lurreko lanaren banaketa sexuala -28-**

Zaintza Lanak Guztion Onerako Lan Gisa -34-

**Zaintzak bizitzaren erdigunean eta elikadura zaintzaren erdigunean.**

**Eskubide kolektiboetan oinarritutako ikuspegia -34-**

**Eta gure baserri eta proiektu agroekologikoetan, nola ulertzen ditugu zaintza lanak? -42-**

**Hazi! Bestelako maskulinitateak proiektu agroekologikoetan -44-**

**Sexu-aniztasuna baserri eremuko erronka eta zaintza gisa -46-**

**Indarkeriarik gabeko bizitzak -46-**

**Arrazakeriaren aurrean ekitea eta kultura-aniztasuna errespetatzea sustatzea -48-**

Agroekofeminismoaren Proposamena -50-

4. AGROEKOLOGIAREN INDAR-IDEIAK ZAINTZAREN IKUSPEGI BATETIK (zaintza indibidualak, komunitarioak eta publikoak) ELIKADURA-SISTEMA BASERRITAR ETA FEMINISTA BATEN ALDE (agroekologikoa, tokikoa eta bidezkoa)

Autozaintza: ni/gu -54-

Pertsonak, lurra eta lurraldea zaintzea -58-

**Pertsonak zaintzea -58-**

**Lursailak, lurra, lurraldea eta elikagaiak zaintzea -58-**

Zaintza Kolektiboak Eta Lurraldean Errotutako Zaintza Komunitarioak-Antolakuntzakoak Elikadura-Sisteman (Lurraldea, Aliantzak Eta · Elikadura-Sistema) -62-

**Zaintza kolektiboak nekazarien batzarretan, erakundeetan eta sindikatuetan -62-**

**Zaintza komunitarioak, antolakuntzakoak eta lurraldean errotuak elikadura-sisteman -66-**

Politika Publikoko Eskaerak -76-

5. BIBLIOGRAFIA




# ÍNDICE


1. LAS SEMILLAS, EL INICIO

¿Por Qué Esta Guía? -7-

Las Protagonistas Mujeres* Baserritarras* -9-

Metodología Y Agradecimientos -15 -

2. ENTENDER EL CONTEXTO DESDE LA RAÍZ

Lo Global -17-

Lo Local -19-

Lo Legistativo -21-

Lo Lingüístico -21-

¿Cómo Se Sostiene El Sistema Alimentario Actual? -23-

3. BAJAR A TIERRA: MUJERES BASERRITARRAS Y LOS CUIDADOS

Mujeres Baserritarras, Trabajo Productivo Y Reproductivo -27

**Transformación de la vida en el baserri -27**

**División sexual del trabajo en el baserri y en las fincas -28-**

Los Cuidados Como Bien Común -35-

**Los cuidados en el centro de la vida y la alimentación en el centro de los cuidados. Un enfoque de derechos colectivos -35-**

**¿Y en nuestros baserris y proyectos agroecológicos, cómo entendemos los cuidados? -43-**

**¡Cultívate! Otras masculinidades en los proyectos agroecológicas -45-**

**Diversidad sexual como reto y cuidado en lo rural -47-**

**Vidas libres de violencia -46-**

**Reaccionar ante el racismo y fortalecer el respeto a la pluriculturalidad -49-**

La Propuesta Del Agroekofeminismo -51-

4.IDEAS- FUERZA DE LA AGROECOLOGÍA DESDE UNA PERSPECTIVA DE CUIDADOS (individuales, comunitarios y públicos) PARA UN SISTEMA DE ALIMENTACIÓN BASERRITARRA Y FEMINISTA (agroecológico, local y justo para todas)

Autocuidado: Yo/Nosotras -55-

Cuidado De Las Personas, La Tierra Y El Territorio -59-

**Cuidado de las personas -59-**

**Cuidado de fincas, la tierra, el territorio, los alimentos y la alimentación -59-**

Cuidados Colectivos Y Los Cuidados · Comunitarios-Territorializados En El Sistema Alimentario -63-

**Los cuidados colectivos en agroasambladas, organizaciones y sindicatos -63-**

**Los cuidados comunitarios-organizativos territorializados en el sistema alimentario (alianzas y territorios) -67-**

Demandas Para Las Politicas Públicas -77-

5. BIBLIOGRAFÍA

# 1. HAZIAK, HASIERA

## Zertarako Gida Hau?

Nekazaritzaz eta abeltzaintzaz hitz egitea bizitzaz hitz egitea da, hau da, elikagaiez, zaintzaz, lurraldeez eta mantentzen gaituen lurraz ere. Aitzitik, nekazaritza industriala eta abeltzaintza intentsiboa desagertu behar dira, eragiten dituzten ondorioak ez baitira bateragarriak bizitzeko moduko bizitza batekin. Agian ezin izango dugu premiak eskatzen duen abiaduraz 180 graduko bira egin, baina bira egiten hasi behar dugu. Bira egiten hasteko, **nekazaritza-ereduaren eta elikadura-sistemaren trantsizio agroekofeminista baterako zaintza-gida hau egiten ausartu gara; hausnartzeko, gure eztabaidetan sakontzeko eta baserri eremuan bizi ez diren beste lagun batzuekin elkartzeko proposamen bezala.**

Horretarako, lehenik, emakume baserritarrek izan duten eginkizuna nabarmendu nahi dugu. Izan ere, emakume horiek ez ikusiak eta gutxietsiak izan dira ehunka urtez; bizitzaren zaintzaile izan diren arren, pertsonak, elikadura, lurra, lurraldea eta, azken batean, planeta zaindu duten arren, eta hainbat jakintza gorde dituzten arren.

*Hala, zaintza lanak eguneroko jardueran nola mamitu aztertu nahi dugu;* zer esan nahi du bizitza erdigunean jartzeak, zaintza lanak gure baserrietan txertatzeak, eta nola neur dezakegu prozesu agroekologikoen "bizigarritasuna[1]" irizpide desberdinak erabiliz. Gure lurraldeak zaintzea eta elikatzea funtsezko eginkizunak dira bizitza eta planeta mantentzeko.

*Beraz, guztiontzat bidezkoa, osasungarria, tokikoa eta iraunkorra den elikadura-sistema batera igarotzeko ibilbide bat abian jarri nahi dugu.* Funtsean, zaintzaren ikuspegia erabiltzen duten elikadura burujabetza eta eredu agroekologikoak babesten ditugu. Halaber, proposamen horiek bultzatzen dituzten eta partaide egiten gaituzten politika publikoak eskubide gisa exijitu behar ditugula uste dugu. Horren guztiaren bitartez, izan daitezkeen estrategiak eta egoerak irudikatzen lagundu nahi dugu, eta baserri eremu bizi baten eta baserritarren beren balioa aintzat hartzen dituzten beste kontakizun batzuk idazten lagundu nahi dugu.



1. Iraunkortasuna bizitza bizigarri egiten duten irizpideen arabera neurtzea, ez soilik irizpide ekonomikoen arabera.

# 1. LAS SEMILLAS, EL INICIO

## ¿Por Qué Esta Guía?

Hablar de agricultura y ganadería debería ser hablar de vida, de alimentos, de cuidados, de territorios y de la tierra que nos sostiene. La agricultura industrial y la ganadería intensiva deberían desaparecer, sus impactos no tienen cabida en una vida vivible para todas. Quizás no podamos dar un giro de 180 grados tan rápidamente como la urgencia lo requiere, pero tenemos que empezar a rotar. Para empezar este giro, nos hemos atrevido a construir esta **guía de cuidados para una transición agroekofeminista del modelo agrícola y del sistema alimentario, como una propuesta para reflexionar, profundizar nuestros debates y encontrarnos con otras personas que no viven en el medio rural.**

*Para ello partimos por visibilizar el papel que han desempeñado las mujeres baserritarras* quienes, durante cientos de años, han sido invisibilizadas y desvalorizadas en los entornos rurales aun siendo las sostenedoras de vida cuidando personas, alimentos, la tierra, el territorio en definitiva el planeta, además de ser las guardianas de tantos saberes.

*Queremos, por tanto, alzar nuestras voces para indagar en cómo aterrizar los cuidados a las prácticas cotidianas.* Qué significa poner la vida en el centro, los cuidados en nuestras fincas y cómo medir la "vidabilidad[1]" de los procesos agroecológicos con criterios diferentes. Cuidando y alimentando nuestros territorios hacemos dos tareas básicas e imprescindibles para el sostenimiento de la vida y el planeta.

*Iniciamos una hoja de ruta para una transición a sistemas alimentarios justos, sanos, locales y sostenibles para todas.* Apostamos por una soberanía alimentaria y por modelos agroecológicos feministas que incorporan la perspectiva de los cuidados, y por la exigibilidad, como derecho, de unas políticas públicas que impulsen estas propuestas y en las que nos sintamos reflejadas e incluidas. Contribuimos así a imaginar estrategias y escenarios posibles, a escribir otros relatos que visibilicen el valor de un campo rural vivo y lleno de baserritarras en Euskal Herria.

1. Medir la sostenibilidad desde diversos criterios que hacen vivible la vida, no solo los económicos.

## Emakume* Baserritarrak* Protagonista[2]

Gida honetan eremu zehatz eta kokatu bati buruz ari gara, hain zuzen ere, Euskal Herriari buruz, eta elikadura, lurra eta lurraldea zaintzen dituzten nekazaritza, abeltzaintza eta eraldaketa proiektuak garatzen dituzten emakumeen ikuspegitik hitz egiten dugu.

Gure aniztasunarekin ere, elkartzen gara eta aintzat hartzen dugu elkar. **Emakume baserritarrak,** landatarrak, kanpoan lan egiten dutenak zein lurraldean bertan proiektuak abiatzen dituztenak. **Soldatapeko emakume landatarrak,** enpresentzat edo beste enplegatzaile batzuentzat lan egiten dutenak. **Landa eremuko emakume enplegatzaileak,** beste emakume batzuk kontratatzen dituzten emakume autonomoak. **Emakume nekazariak,** nekazaritza ekoizpeneko lanean ari direnak eta lurrarekin eta ondasun naturalekin harreman zuzena dutenak. Kasu honetan, ikus dezakegu nola, gero eta gehiago, ustiategi bat duten emakume nekazari asko hirietan bizi dira. Beraz, badaude emakume nekazari landatar-hiritarrak edo baserritar berriak ere, hau da, hiritik lurrari eta lurraldeari lotutako bizimodu baten aldeko apustua egiten dutenak, batez ere eredu agroekologikoen eta, maiz, kolektiboen bitartez. **Emakume nekazari migratuak,** hainbat mugaren ondorioz (lurra lortzeko zailtasunak, oztopo legalak, baliabideak lortzeko zailtasunak...) ezin direnak jabe izan eta kontratatuak izan behar direnak, pairatzen duten prekarietatea eta diskriminazioa larriagotuz. Beraz, emakume migratuen artean, kontratatuak autonomoak baino askoz gehiago dira. Baserriko bizitzari lotutako **emakume baserritarrak.** Gaur egun, horrek ez du esan nahi lurrari eta nekazaritza lanari lotuta daudenik. Izan ere, azken hamarkadetan, aldaketa handia izan da eta bizimodu hori eta familia zabalari eta lurraldeari lotutako ekoizpen-eredu tradizionala galtzen joan dira

Kasu askotan, **identitate krisia** ere aurkitzen dugu eta **proposamen berriek** itxaropena eta ilusioa pizten dute. Hori dela eta "emakume baserritarrak" kontzeptua nekazaritza egoera berrietara moldatu nahi dugu, gure burua kategorietan banatuz ez ahultzeko. Horretarako, bada, subjektu horrek lurrarekin, eredu agroekologikoarekin eta askotariko proiektuekin duen lotura nabarmentzen dugu, eta haren indar historikoa aintzat hartzen eta ohoratzen dugu. Emakume, migrante, lesbiana, gay, bisexual, transgenero, queer eta intersexual (LGTBI) gisa dugun aniztasuna aldarrikatzen dugu, gure imajinarioan eta erakundeen errealitatean nagusi den gizon, zuri eta nekazariaren profilaren aurrean. Baserriko bizitza erromantizatu gabe, baina agronegozioaren ereduari aurre egiteko behar ditugun funtsezko alderdiak hartuz.

2. Salda Badago topaketa feministan proposatu zen emakumeak hitzari atzean izartxo bat jartzea, feminismoaren subjektua zabaltzeko helburuz. Emakume* baserritarrak* moldea erabiltzea hitz biak zentzu zabalean ulertzea da. Testuan zehar ez ditugu izartxoak erabiliko baina kontzeptu zabal horretaz ari gara.

# Las Protagonistas: Mujeres* Baserritarras[2]*

En esta guía hablamos desde un espacio concreto y situado, que es Euskal Herria, y desde mujeres vinculadas al alimento y al cuidado de la tierra y el territorio por sus proyectos agrícolas, ganaderos, de transformación artesanal o un poco de todo.

Nos encontramos y nos reconocemos desde nuestra diversidad; **Mujeres rurales** que viven en zonas rurales, trabajan fuera o emprenden en el territorio. **Mujeres asalariadas campesinas**, contratadas por tiempos y tareas, por empresas o empleadoras. **Empleadoras en el campo**, mujeres autónomas que contratan a otras mujeres. **Mujeres campesinas** que desarrollan un trabajo productivo agrario y tienen el vínculo directo con la tierra y los bienes naturales. En este caso vemos cómo, cada vez más, existen mujeres campesinas que siendo las titulares viven en zonas urbanas. Hay campesinas rur-urbanas (rural +urbanas) o las denominadas neorurales, que son mujeres que desde lo urbano apuestan por una forma de vida ligada a la tierra y el territorio, vinculada principalmente a modelos agroecológicos en muchos casos colectivos. **Mujeres campesinas migradas** que, por diferentes limitaciones (acceso a la tierra, legales, acceso a bienes…), sólo pueden ser contratadas y no ser titulares, agravando sus condiciones de precarización y discriminación. Por tanto, existe un número mucho menor de mujeres migradas que son autónomas frente a quienes son contratadas. **Mujeres baserritarras** vinculadas a la vida en el baserri. Hoy en día no significa estar vinculada a la tierra y un trabajo agrario. En las últimas décadas se ha dado un cambio y pérdida de esta forma de vida y del modelo productivo tradicional ligado a la familia extensa y al territorio.

En muchos casos, nos encontramos a la vez con una **crisis de identidad** y con la esperanza e ilusión en las **nuevas propuestas.** Es por esto que optamos por adaptar el concepto de “mujeres baserritarras” a las nuevas realidades agrarias, para no debilitarnos al separarnos en categorías, resignificándolo con el vínculo a la tierra, al modelo agroecológico, a proyectos diversos y honrando y reconociendo su fuerza histórica. Reconocemos nuestra diversidad como mujeres, personas migradas, personas lesbianas, gay, bisexuales, transgénero, queer e intersexuales (LGBTI), frente al perfil predominante en nuestro imaginario y en la realidad institucional y organizacional del varón, blanco y de tradición agrícola. Sin romantizar la vida baserritarra, pero tomando los aspectos claves que hoy necesitamos para contrarrestar el modelo del agronegocio.

2. Durante el encuentro feminista Salda Badago se propuso poner un asterisco detrás de la palabra mujeres*, para pensar en ampliar el sujeto del feminismo en la práctica. Poner mujeres* baserritarras* es entender el amplio sentido y diverso en las dos palabras. En el texto no pondremos asteriscos, pero estaremos pensando desde este concepto amplio.

Gure hausnarketetan, honako betaurreko hauek erabiltzen ditugu:

**Agroekologiaren eta Elikadura Burujabetzaren betaurrekoak:** **elikadura burujabetza** herriek beren elikadura- eta nekazaritza-sistema askatasunez erabakitzeko, eta elikagai osasungarriak eta kulturalki egokiak ekoizteko eta kontsumitzeko duten eskubidea da. Kontzeptua Via Campesinatik sortu zen, 1996ko Elikaduraren Nazioarteko Gailurraren testuinguruan. **Agroekologia baserritarra** elikagaiak modu iraunkor eta ekologiko batean ekoizteko tresna da, hain zuzen, elikagai nutritiboak, eskuragarriak eta kulturalki egokiak. Proposamenak jakintza tradizionalak berreskuratzen ditu, bioaniztasuna errespetatzen du, elikagaiak pestizidarik eta kimikorik gabe ekoizten ditu nekazarien lursailetan, eta nekazaritza jardueraren ikuspegi integrala du, hau da, ekonomikoa, politikoa, soziala, kulturala, ingurumenekoa eta energetikoa.

**Feminismoaren eta ekonomia feministaren betaurrekoak:** **Via Campesinako emakumeen feminismo baserritar eta herritarrari esker[3],** honako hauekin amets egiten ikasi genuen: elikadura burujabetza feminista batekin; zaintzak bistaratzen eta aintzat hartzen dituzten praktika agroekologikoekin; gure proiektuak, jakintzak eta lurraldeak desmerkantilizatzeko proposamen zehatzekin. “Baserritarra” da baserritik edo landa eremutik datorrelako, eta “herritarra” da klase xumeen feminismoa delako (nekazariak, langileak, migranteak, nekazaritzako soldatapeko langileak, indigenak, afrikar jatorrikoak, etab.). **Euskal Herriko mugimendu feminista hiritarretatik** ikasi genuen garrantzia bera dutela zer egiten dugun eta hori nola eta norekin egiten dugun. Bidelagunak aurkitzea funtsezkoa da nekazaritzaren sektoreak bizirik iraun dezan. **Ekonomia feministak,** bere aldetik, ekonomia baserritarra honako alderdi hauen arabera aztertzen irakatsi zigun: denboraren kudeaketa, lanaren banaketa eta norberari emandako onuraz gain gure lanak duen eragina. Azken batean, “arlo pertsonala politikoa ere badela” ulertu dugu.



3 Feminismo baserritarra eta herritarra etengabe mugitzen den oinarrizko eraikuntza da. Horretan emakume baserritarrek berek, bakoitzak bere testuingurutik, beren burua zehazten dute eta edukia eman diote kontzeptuari. Lurraldeak, gorputza eta antzinako jakintzak eta praktikak aintzat hartzean oinarritzen den proposamena da, eta emakume baserritar, indigena eta afrikar jatorrikoen borroka aldarrikatzen du ikuspegi intersekzional batetik. Haren helburua, bada, sistema kapitalista, kolonial eta patriarkalek nagusitu dituzten desparekotasun sistemen aurrean bidezko justizia lortzea da; eta, horretarako, identitateak berreraikitzen dituzte, bizitzaren iraunkortasunaren eta bizitze onaren aldeko erresistentzia-mekanismo gisa. Hala, bizitze ona haziekin, bioaniztasunarekin, emakumeen ezagutza herritarrekin, agroekologiarekin, elikadurarekin eta lurraldearen eta gorputzen defentsarekin estu lotuta dagoela ulertzen du.

En nuestras reflexiones, nos nutrimos de las siguientes perspectivas:
**Gafas de la Agroecología y la Soberanía alimentaria:** la **soberanía alimentaria** es el derecho de los pueblos a decidir de forma autónoma su sistema alimentario y agrícola, y el derecho a producir y consumir alimentos saludables y culturalmente apropiados. El concepto nace con Vía Campesina con motivo de la Cumbre Mundial de la Alimentación en 1996. La **agroecología campesina** es el instrumento para producir alimentos de forma sostenible y ecológica, nutritivos, accesibles y culturalmente adecuados. Siendo una propuesta que recupera los saberes tradicionales, respeta la biodiversidad, cultiva los alimentos sin pesticidas ni químicos en fincas campesinas y es entendida como la visión integral de una actividad agraria en sus dimensiones económica, política, social, cultural, ambiental y energética.

**Gafas feministas y la economía feminista:** del **feminismo campesino**[3] **y popular de las mujeres de La Vía Campesina** aprendimos a soñar por una soberanía alimentaria feminista, con unas prácticas agroecológicas que visibilicen y valoren los cuidados, con propuestas concretas de desmercantilización de nuestros proyectos, nuestros saberes, nuestros territorios. Es "campesino" porque parte de la realidad del campo y "popular" porque es un feminismo de las "clases populares" (campesinas, trabajadoras, migrantes, asalariadas agrícolas, indígenas, afrodescendientes, etc.). De los **movimientos feministas urbanos de Euskal Herria** aprendimos que es igual de importante lo que hacemos, que el cómo y con quiénes lo hacemos. Encontrar compañeras de camino es fundamental para nuestra supervivencia como sector agrario. La **economía feminista** nos enseñó a analizar la economía campesina desde la gestión del tiempo, el reparto de tareas que sostienen y el impacto de nuestro trabajo más allá de un beneficio individual. Entender que "lo personal es político".

3 El Feminismo campesino y popular es una construcción de base y que está en constante movimiento, donde las propias campesinas desde sus contextos se han ido definiendo y dando contenido al concepto. Es una propuesta política basada en el reconocimiento de los territorios, el cuerpo, rescatando los pensares, saberes y prácticas ancestrales que reivindica la lucha de las mujeres campesinas, indígenas y afrodescendientes desde un enfoque interseccional, para alcanzar la justicia social que los sistemas capitalistas, colonial y patriarcal han hegemonizado como sistemas de desigualdad y, por tanto, reconstruyen identidades como mecanismos de resistencias para la sostenibilidad de la vida y el buen vivir. Reconociendo que el buen vivir está íntimamente relacionado con las semillas, la biodiversidad los conocimientos populares de las mujeres, la agroecología, la soberanía alimentaria y la defensa del territorio y de sus cuerpos.

**Ekologismoaren betaurrekoak:** betaurreko hauekin aintzat hartzen dugu Lurrean bizi garela, lurralde jakin batekoak garela, beste izaki bizidun, sistema eta ziklo natural batzuekin harremanetan gaudela etengabe, eta horiei esker bizirik mantentzen garela. Beste izaki batzuei eta lurraldeari gertatzen zaien horrek gugan ere eragiten du. Hau da, izaki **ekodependenteak** gara, gure bizitza bera eta gure jardueretan erabiltzen ditugun baliabideak eta ondasunak naturatik baitatoz. Gainera, **interdependenteak** ere bagara, ezin baitugu gizaki baten bizitza pentsatu beste gizaki baten laguntzarik gabe. Hala, **ekofeminismoak** lotura ikusten du naturaren esplotazioaren eta narriaduraren eta emakumeen zapalkuntzaren artean, horrek erreprodukzio eta zaintza lanekin duen loturagatik. **Desazkundearen proposamenak** beharrezkoak dira, eta baliabide mugatuak dituen planeta batean bizi garela eta muga horiek gainditzen ari garela onartzera behartzen gaituzte. Ikuspegi bietatik, emakume baserritarren eginkizuna aintzat hartzen dugu. Izan ere, haiek, historikoki, ekoizpen jasangarriko ereduak mantendu dituzte mundu mailan, lurraren zikloetara lotuta eta ondasun naturalak zainduz eta babestuz, erdu intentsibo eta industrialaren aurrean. Izan ere, eredu intentsibo eta industrial horrek erregai fosilak modu masiboan behar ditu (ongarriak, pestizidak, makinak, banaketa...) eta ondasun naturalak esplotatzen eta espoliatzen ditu.

**Naturaren eskubideen betaurrekoak:** ikuspegi honek ingurumena zaintzeko ikuspegian urrats bat haratago joatea eskatzen du, giza eskubideez gain beste eskubide batzuk ere aintzat hartzeko. Jaiotzen den eta izaera duen guztia Natura da, gizakiok ere. Giza Eskubideak eta Naturaren Eskubideak elkarren osagarri dira, nolabait. Lurra, euria, ibaiak, animaliak, landareak, elikagaiak, pertsonak, lurraldeak... Ingurumen eskubideak ez bezala, Naturaren Eskubideak bizi-zikloak babestu nahi dituzten eskubide ekologikoak dira; beraz, fokua ekosistemetan jartzen dute, horiek bermatzeko. Haien helburua ez da ingurumen-kaltea gizakiei ordaintzea, baizik eta kaltetutako ekosistemak leheneratzea eta beren onera ekartzea.

**Internazionalismoaren eta begirada kolektiboaren betaurrekoak:** **internazionalismo baserritarraren** bitartez, Europako eta Iparralde globaleko agroindustriaren enpresa transnazionalek hegoalde globaleko herrialdeetan egiten duten espoliatzea identifikatzen dugu. Hartzen ditugun elikagai asko eta erabiltzen ditugun baliabide natural asko Amerikako, Asiako eta Afrikako nekazari txikiek produzitu dituzte. Pentsamolde internazionalistari, eredu agroindustrialak tokiak eta munduan duen inpaktuaren azterketari eta Via Campesinari esker, borroka guztien artean egin behar dugula ulertzen dugu. “Globaliza dezagun borroka, globaliza dezagun itxaropena”; Via Campesinaren lelo hura gure egiten dugu. Gure erosketa aukerek eragin globala dute. Hala, begirada kolektiboa eta elkarrekin lan egitea ezinbestekoa da landa eremua eta elikadura-sistemak eraldatzeko, bai hegoalde globalean eta bai iparralde globaleko periferietan ere. Emakume baserritar aktibistak gara; hori guztia gure laboreez harago doalako.

**Gafas ecologistas:** estas gafas implican reconocer que habitamos en la Tierra, que pertenecemos a un territorio, que todo el tiempo nos relacionamos y coexistimos con otros seres vivos, con otros sistemas y ciclos naturales que nos permiten mantenernos vivas. Lo que le pase a otros seres y a nuestros territorios, nos afecta. Por tanto, somos seres **ecodependientes** porque nuestra vida y los recursos y bienes que utilizamos para todas nuestras actividades, salen de la naturaleza. Esto se suma al hecho de ser **interdependientes**, ya que es imposible pensar en la vida de un ser humano sin la ayuda de otro ser humano. El **ecofeminismo,** ve una conexión entre la explotación y la degradación del mundo natural y la subordinación y la opresión de las mujeres por su vínculo con las tareas reproductivas y del cuidado. Las propuestas de **decrecimiento** son una necesidad que impone el reconocer que vivimos en un planeta con recursos limitados, en el que ya se evidencian los efectos de la superación de esos límites. Desde ambas miradas, reconocemos el papel de las mujeres campesinas, a nivel global, por mantener históricamente modelos de producción sostenibles, arraigados a los ciclos de la tierra, al cuidado y protección de los bienes naturales frente al modelo intensivo e industrial que depende de un uso masivo de combustibles fósiles (abonos, pesticidas, maquinaria, distribución…) y de la explotación y expolio de los bienes naturales.

**Gafas de los derechos de la Naturaleza:** supone dar un paso más en la visión de cuidar el medio ambiente y ver mas allá de los derechos solo humanos. Todo lo que nace y existe es Naturaleza, incluidas las personas. Los Derechos Humanos y los Derechos de la Naturaleza se complementan. La tierra, la lluvia, los ríos, los animales, las plantas, los alimentos, las personas, los territorios…A diferencia de los derechos ambientales, los derechos de la Naturaleza son derechos ecológicos que buscan proteger los ciclos vitales; se enfocan por tanto en ecosistemas para asegurar su existencia. No busca indemnizar a los humanos por el daño ambiental, sino que persigue la restauración y regeneración de los ecosistemas afectados.

**Gafas del internacionalismo y la mirada colectiva:** a través **del internacionalismo campesino** vemos el expolio a los países de sur global desde grandes empresas multinacionales de la agroindustria europea y el norte global. Muchos de los alimentos que consumimos y de los bienes naturales que utilizamos en Europa han sido producidos por pequeñas agricultoras o campesinado de América, Asia y África. La mentalidad internacionalista, el estudio a nivel local y global del impacto del modelo agroindustrial y la conexión con la Vía Campesina nos hace entender que la lucha tiene que ser entre todas. "Globalicemos la lucha, globalicemos la esperanza" de la Vía Campesina es parte de nuestros lemas. Nuestra cesta de la compra tiene un impacto global. **La mirada colectiva y trabajar juntas** es imprescindible para transformar el campo y los sistemas alimentarios, tanto en el sur global como en las periferias del norte global. Somos mujeres baserritarras activistas porque esto va más allá de nuestros cultivos.

# Metodologia eta Esker Onak

**Gida honek emakume baserritar gisa izan ditugun esperientzia pertsonal eta kolektiboen indar-ideiak bildu nahi ditu, zaintza indibidual, kolektibo eta publikoko estrategiak bultzatzeko.**

Ikerketa Ekintza Partaidetza (IEP) metodologiaren eta "baserritarrez baserritar" metodologiaren bitartez, hausnartzeko eremuak sortzen ditugu, iturri dokumentalak eta bibliografiak aztertzen ditugu, banakako  galdetegiak eta elkarrizketak eta taldekako fitxa-gidoiak egiten ditugu. Hau da, hainbat hausnarketa, esperientzia eta elkarrizketa (formalak eta informalak) eta materialen azterketa egiten ditugu.

Prozesu hori laburbiltzeko ahalegin horretan, ez dugu alde batera utzi nahi izan protagonisten *"hitza eta adierazpen zuzena"*. Hortaz, eta partekatu nahi dugun ideia oro indartzeko helburuz, gidaren hainbat lekutan *letra etzaneko esaldiak daude.* Horiek taldeetan eta *elkarrizketetan parte hartu duten emakume baserritarren benetako hausnarketak dira.*

Gida hau egiteko, ezinbestekoak izan dira Etxaldeko Emakumeak ekimenean, EHNE-Bizkaiaren Agroekologia Eskolan eta Via Campesinako emakumeen topaketetan sortutako proposamenak. Ideiak pluraleko lehen pertsonan adierazten ditugu, alde batetik, dokumentu hau emakume baserritarrok landu dugulako eta, bestetik, landutako gaiek zuzenean eta kolektiboki zeharkatzen gaituztelako. Hala, lan honek hausnarketen eraikuntza kolektiboa, gure arbasoen ekarpen historikoak eta EHNE-Bizkaia bezalako antolakuntza-eremuen ekarpena ere jasotzen ditu.

Beraz, emakume askok, beren ideien, bizipenen eta ikerketen bitartez eskaini izan duten ezagutza komunitarioaren haziak biltzen ditu gidak.

Hala, emaitza gisa, guztion artean egositako sukalkia dugu, eta espero dugu zu ere horren parte sentitzea. Horrela ulertuz, bada, ezagutzak eta jakintzak sortzeko "beste modu" batzuk aintzat hartzen ditugu. Beraz, gida honekin ez dugu dokumentu akademiko edo teoriko bat sortu nahi, baizik eta etengabe eraikitzen, praktikatzen eta ikasten ari den hausnarketarako eremu bat.



# Metodología y Agradecimientos

**Esta guía quiere recopilar ideas-fuerza a través de nuestras experiencias personales y colectivas como mujeres baserritarras, para impulsar procesos y estrategias de cuidados individuales, colectivos y públicos.**

Desde la metodología de la Investigación Acción Participativa (IAP) y la metodología "campesina a campesina" generamos espacios de reflexión, analizamos fuentes documentales y bibliografías propias y externas, realizamos cuestionarios y entrevistas individuales y fichas-guion en grupos. En total, un compendio de reflexiones, experiencias y conversaciones (formales e informales) y análisis de materiales.

En el esfuerzo de síntesis de este proceso no quisimos dejar de lado *"la palabra y expresión directa"* de las protagonistas, por esto, y con la apuesta por fortalecer cada idea que queremos compartir, aparecen en varios apartados de la guía *frases en cursiva que son reflexiones reales de las mujeres baserritarras* que han participado en los grupos y entrevistas.

En la elaboración de esta guía han sido imprescindibles las propuestas generadas desde Etxaldeko Emakumeak, de la Escuela de Agroecología en EHNE-Bizkaia y los encuentros con las mujeres de La Vía Campesina. La escribimos en primera persona del plural ya que, en primer lugar, este documento lo trabajamos mujeres baserritarras y los temas nos atraviesan directa y colectivamente. En segundo lugar, recoge la construcción colectiva de las reflexiones, el reconocimiento de los aportes histórico de nuestras ancestras en ellos y el aporte de espacios organizativos como EHNE-Bizkaia.

Por tanto, son semillas del conocimiento comunitario de una diversidad de mujeres que han aportado a través de sus ideas, vivencias e investigaciones.

El resultado es un guiso que se nutre de todas y entre todas y donde esperamos que te reconozcas. Entenderlo así, es tener en cuenta "otras formas" que concebimos para producir conocimientos y saberes. Con esta guía no pretendemos generar un documento académico ni teórico, sino un espacio reflexivo que está en continua construcción, práctica y aprendizaje.

# 2. TESTUINGURUA ERROTIK ULERTZEA

## Esparru Globala

Sistema ekonomiko neoliberal, kapitalista, patriarkal, arrazista eta klasista batean bizi gara. Haren oinarrian etengabeko hazkundea dago eta lehengaiak eta giza-energia kontsumitzen ditu dirua/kapitala sortzeko. Etengabeko metaketa-prozesu baten bitartez "funtzionatzen" du, eta prozesu hura bizitzaren merkantilizazioan eta pertsonen eta ondasun naturalen esplotazioan oinarritzen da, baita jatorrizko herrien eta planetaren espoliazioan ere.

Haren baitan, nekazaritza-industria intentsiboan oinarritutako elikadura-sistema hazten da neurririk gabe. Hark, bada, berotegi efektuko gasen herena baino gehiago[4] isurtzen ditu, klima-aldaketa modu zuzenean bultzatuz. Gainera, gizakion eta gainontzeko izaki bizidunen bizitza, ondasun naturalak eta komunak, ibaiak, mineralak, basoak eta lurraldeak espoliatzen eta pribatizatzen ditu; eta, lurren metaketaren, deforestazioaren eta ongarri eta pestizida kimikoen erabilera gero eta handiagoren bitartez, ekosistemak narriatzen ditu, desparekotasuna eragiten du eta baserriko bizimodua suntsitzen du.

Horrek eragindako KRISIAK letra larriz eta pluralean adierazten ditugu, dimentsio anitzekoak baitira (ingurumenekoa, nekazaritza eta elikadurakoa, zaintzakoa, soziala eta ekonomikoa).

Elikadura-sistema industrial horren bitartez, bada, bizitza mantentzeko funtsezko esparruak pribatizatzen eta merkantilizatzen dituzte, tartean, elikadura. Bizitza eta elikadura ez daude agenden muinean. Hala, "elikadura txarrak[5]" ondorioak ditu pertsonengan, giza eskubideetan eta osasunean. Jasanezina da lurralde eta pertsonentzat, baina onuragarria elikadurarekin espekulatzen duten horientzat.

Zibilizazio-eredu hegemoniko horretan, gainera, kultura aniztasuna gutxiesten da eta "besteak" diskriminatzen dira (pertsona arrazializatuak, emakumeak, jatorrizko herriak); eta egoera larriagoa da lurra, nekazaritza-sargaiak, teknologia edo hezkuntza eskuratzeko aukerari dagokionez, batez ere hegoalde globaleko emakume nekazarientzat. Hala ere, nekazaritza baserritarrak eta, batez ere, emakumeek elikatzen dute mundua[6].

4 IPCC, 2019; Crippa et al., 2021
5 Ultraprozesatua, eta janari lasterra deiturikoa, baita elikagai transgenikoak edo pestizidekin ekoitzitako elikagaiak ere.
6 Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen (FAO) arabera, nekazaritza baserritarrak munduko elikagai guztien % 75-80 ekoizten ditu. Ekoizpen horren zati handi bat emakumeek egiten dute; nahiz eta emakumeek lur gutxi eta ondasunak lortzeko aukera gutxi dituzten eta, maiz, beren lurraldeetatik botatzen dituzten, batez ere hegoalde globalean. https://www.fao.org/3/CC5060ES/online/status-women-agrifood-systems-2023/chapter1.html

# 2. ENTENDER EL CONTEXTO DESDE LA RAIZ

## Lo Global

Vivimos en un sistema económico neoliberal, capitalista, patriarcal, racista y clasista, que tiene la base de su existencia en el crecimiento ilimitado y el consumo de materias primas y energía humana para la generación de dinero/capital. "Funciona" movido por un proceso de acumulación permanente, sustentado en la mercantilización de la vida, la explotación de las personas y bienes naturales, así como el expolio de los pueblos originarios y del planeta.

Bajo este paraguas crece ilimitadamente un sistema alimentario con una agroindustria intensiva que emite más de un tercio[4] de las emisiones de gases de efecto invernadero, contribuyendo directamente al cambio climático. Se expolia y privatiza la vida humana y no humana, los bienes comunes naturales, ríos, minerales, bosques y territorios. El acaparamiento de tierras, la deforestación, el aumento del uso de fertilizantes y pesticidas químicos degrada ecosistemas, genera desigualdad y acaba con las formas de vidas campesinas.

CRISIS en mayúsculas y en plural (ambientales, agroalimentarias, de cuidados, sociales y económicas) por su multidimensionalidad.

Se privatizan y mercantilizan esferas vitales para el sostenimiento de la vida, como la alimentación. La vida y la alimentación no están en el centro de las agendas. La "comida mala[5]" tiene un impacto directo desplazando personas, derechos humanos y la salud. Es insostenible para el territorio y las personas, pero rentable para los que especulan con la alimentación.

Este modelo civilizatorio dominante viene cargado, a su vez, por el menosprecio a la diversidad cultural y la discriminación a la otredad (a la persona racializada, a las mujeres, a los pueblos originarios), situación que agrava aún más el acceso a bienes valiosos como la tierra, los insumos agrícolas, la tecnología y procesos formativos, a las mujeres campesinas principalmente en el sur global. A pesar de ello, es la agricultura campesina y especialmente las mujeres quienes alimentan el mundo[6].

4 IPCC, 2019; Crippa et al., 2021
5 Ultraprocesada, y la llamada comida rápida, así como los alimentos transgénicos o cultivados con pesticidas.
6 Según la Organización de las Naciones Unidas para la Agricultura y la Alimentación (FAO), la agricultura campesina proporciona entre el 75% y el 80% del suministro mundial de alimentos. Gran parte de esta producción es llevada a cabo por mujeres, que tienen poca tierra, poco acceso a bienes, y a menudo son expulsadas de sus territorios, especialmente en el sur global. https://www.fao.org/3/CC5060ES/online/status-women-agrifood-systems-2023/chapter1.html

# Tokiko Esparrua

Euskal Herrian, sistema hegemonikoak dira nagusi; izan ere, nekazaritza-industriaren eta elikagai prozesatuen aldeko eredu intentsiboa dugu. Erakunde publikoek ere, beraz, eredu agroindustrial horren alde lan egiten dute. Horren adibide da Araban dagoen 15 hektareako makro-negutegia. Horretan, sistema hidroponiko baten bitartez eta lurrik gabe, tomatea ekoizten dute, hura sasoiz kanpo saltzeko. Proiektu horrek, alde batetik, inbertsio handia izan du, eta, bestetik, energia eta ur kantitate izugarriak kontsumitzen ditu. Beste adibide batzuk daude, hala nola Donostian haragi sintetikoa ekoizteko planta bat ezartzeko erabakia eta Caparrosoko makroetxaldea, 10.000 behi inguru izango dituena.

Lurralde bakoitzean berezitasun txikiak badaude ere, oro har, **nekazaritza-jarduerak ez dira oinarri ekonomikoaren zati garrantzitsua lurralde batean ere,** eta lurraldeak gero eta **hiritarragoak eta industrialagoak** dira. Nekazaritzako lursailen erdia baino gehiago desagertu egin dira azken urteotan. Gaur egun, biztanleen % 1,5k baino gutxiagok ekoizten dituzte elikagaiak, eta kontsumitzen ditugun elikagaien % 5 baino gutxiago produzitzen dira tokian. Adibidez, Gasteizen 2022an kontsumitutako 67.000 tona elikagaietatik, % 1,1 besterik ez ziren Araban ekoiztu, eta % 2,4 Gipuzkoan eta Bizkaian[7].

Ustiategien batez besteko tamaina handitu egin da, ekoizpena intentsifikatzeko beharrari erantzuteko, eta ustiategi txikienak desagertu egin dira. Horren ondorioz, lurren metaketa larriagotu egin da eta diru-laguntzak gero eta esku gutxiagotan biltzen dira, lursail horiek lantzen ez badituzte ere. Horren adibide da Ipar Euskal Herrian lurraren inguruan egiten den espekulazioa. Horrek prezioaren igoera izugarria ekarri du, lurra turismora eta etxebizitzak egitera bideratzearen ondorioz.

Ez dago belaunaldi arteko erreleborik eta ustiategien titulartasuna, nagusien, gizonen eta enpresen eskuetan dago. Nabarmendu beharra dago ustiategi txikienetan emakume titular gehiago daudela: 20 hektarea baino gutxiagoko ustiategien % 35ren titularrak emakumeak dira, eta ehuneko horrek behera egiten du ustiategiaren tamaina gora doan neurrian[8]. Gainera, ustiategien titularren artean, emakumeen ehunekoa bost puntu jaitsi da, %25,6ra arte, eta batez besteko adina 60 urtekoa da[9].

Beraz, sektorearen narriadura gero eta handiagoa atzematen da, nekazaritza eredu industrialaren inposizioagatik eta eskala ertain eta txikiko ekoizpena babesteko politika publikorik ez dagoelako, batez ere proiektu agroekologikoak, elikagaiak eraldatzeko artisau-lantegiak eta/edo lantegi kolektiboak, eta banatzaile txikiak. Gauza bera gertatzen da landa eremuko eta nekazaritza arloko berdintasun arauekin. Izan ere, errentagarriagoa da elikadura-katearen maila guztietan esku-lan merkea izatea eta kontsumo neurrigabea sustatzea.

7. CEA Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak bere 2022ko Memorian argitaratua (2023: 55).
8. INE, 2016
9.https://www.eustat.eus/elementos/el-numero-de-explotaciones-agricolas-en-la-ca-de-euskadi-disminuye-un-17--entre-2013-y-2016-/not0014486_c.html

# Lo Local

En Euskal Herria, la foto es un reflejo de los sistemas dominantes ya que impera un modelo intensivo que apuesta por la agroindustria y la alimentación procesada. Existen ejemplos claros de la apuesta por el modelo agroindustrial apoyados por las Instituciones: como el macro-invernadero de 15 hectáreas, situado en Álava, para la producción artificial de tomate sin tierra, mediante sistema hidropónico, para vender fuera de temporada y que ha supuesto, primero, una gran inversión, y segundo, un altísimo y continuo gasto energético y de agua. Otros ejemplos son la aprobación e implementación de una planta en Donosti de elaboración de carne sintética y la macrogranja de Caparroso que proyectan que llegue a una capacidad de casi 10.000 vacas.

Aunque hay matices en cada territorio, en general, **las actividades agrarias ya no constituyen la base económica en ninguno,** siendo los territorios cada vez **más urbanos e industriales.** Más de la mitad de las fincas agrícolas han desaparecido en los últimos años. Se estima que, hoy en día, menos de un 1,5% de la población se dedica a la producción de alimentos y menos del 5% de lo que se consume es de producción local. En Gasteiz, de las 67.000 toneladas de alimentos consumidos en 2022, un 1,1% es de origen alavés y un 2,4% procede de Gipuzkoa y Bizkaia[7].

El tamaño medio de las explotaciones ha aumentado ante la necesidad de intensificar su producción y han desaparecido las fincas pequeñas. Esto conlleva un mayor acaparamiento de la tierra y la concentración de subvenciones en pocas manos, aún sin trabajar esa tierra. Un claro ejemplo de esto es la especulación de la tierra que ocurre en Iparralde, donde hay un incremento astronómico del precio para uso turístico y residencial.

No hay relevo generacional y la titularidad está principalmente en manos de personas mayores, hombres y empresas. Es interesante visibilizar cómo es en las explotaciones más pequeñas donde la presencia de mujeres titulares es mayor: sólo el 35% de las explotaciones inferiores a 20 hectáreas son de mujeres titulares, reduciéndose aún más el porcentaje a medida que aumenta el tamaño de la explotación[8]. Ademas, la presencia de las mujeres como titular de explotación ha disminuido en cinco puntos hasta suponer el 25,6%, con una edad media de casi 60 años.[9]

Por tanto, se demuestra un deterioro progresivo del sector, ante la imposición del modelo agroindustrial y por la falta de políticas públicas que apoye la producción a mediana y pequeña escala, especialmente de proyectos agroecológicos, obradores de transformación artesanal y/o colectivos y las pequeñas distribuidoras, así como en la implementación de las normativas para la equidad en el medio rural y agrario. Es más fácil y rentable tener mano de obra barata para todos los eslabones de la cadena alimentaria y un consumo desbordado.

7. Publicado en 2023 por Centro de Estudios Ambientales (CEA) Memoria 2022 pág. 55.
8. INE, 2016
9.https://www.eustat.eus/elementos/el-numero-de-explotaciones-agricolas-en-la-ca-de-euskadi-disminuye-un-17--entre-2013-y-2016-/not0014486_c.html

# Lege Esparrua

Urruneko kontu bat dirudien arren, legeek zuzenean eragiten digute. Gainera, ideologiaz beteta daude eta lehen aipatutako ekonomia- eta nekazaritza-ereduaren alde egite dute. Horietako batzuk jasotzen ditugu. Hala, lege horiek feministak diren eta agroekologia, tokiko elikadura-sistemak eta elikadura burujabetza sustatzen duten hausnartzera gonbidatzen zaituztegu.

Hona hemen horietako batzuk:

· *Nekazarien Eskubideen Aldarrikapena, 2018ko abenduaren 17koa, Nazio Batuen Erakundea.*

· *Nekazaritza Politika Bateratua (NPB), 2023-2027 aldirako.*

· *"Baserritik Mahaira" estrategia (2020), Europako Itun Berdearen esparruan.*

· *3/2007 Legea, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasunari buruzkoa.*

· *35/2011 Legea, urriaren 4koa, Nekazaritza Ustiategien Titulartasun Partekatuari buruzkoa.*

· *Landa Garapenerako Programa Nazionala (PNDR) (2014-2020).*

· *Emakumeak Landa Eremuan Sustatzeko Plana (2015-2018).*

· *Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoa (2018-2021).*

· *4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.*

· *17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzkoa.*

· *8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa.*

· *7/2022 Legea, Euskadiko Landa Garapenari buruzkoa.*

· *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.*

# Hizkuntza Esparrua

Ekoizpen intentsiboko eredu horiek gero eta kritika gehiago jasotzen dituzte. Horren aurrean, agronegozioak berdez janzten da eta agroekologiaz hitz egiten du. Hitzak bereganatzen eta despolitizatzen dituzte eta, maiz, guk ere zentzu horrekin hartzen ditugu azkenean. Hori dela eta, hitz horiek nabarmendu nahi ditugu, geure kontakizunak idazteko ariketa kontziente gisa.

Esate baterako: ekoizleak = elikagaiak hazten eta ekoizten dituzten pertsonak, nekazariak edo baserritarrak. Ekoiztu = elikagaiak hazi eta uztatu; kontserbak egin. Ustiategia = nekazaritza esparrua, baserria, lursailak. Produktuak = elikagaiak, kontserbak, esnekiak.

Oinarrizko kontzeptuak partekatzea eta esanahia ematea funtsezkoa da genero ikuspegia duen trantsizio agroekologiko baterantz ibiltzeko. Gure motxila aipatutako mugimendu eta ikuspegietatik sortutako hitzez elikatzen da.

## Lo Legislativo

Aunque parezcan lejanas, las leyes nos afectan directamente. Están cargadas de ideología y hay una apuesta por un modelo económico y agrícola que ya hemos visto reflejado en los análisis anteriores. Recopilamos algunas de ellas e invitamos a revisar análisis críticos que nos permitan valorar sí son feministas o sí fomentan la agroecología, los sistemas alimentarios locales y la soberanía alimentaria, y sí son implementadas.

Algunas son:

*· Declaración de los derechos campesinos, 17 de diciembre de 2018 Organización de las Naciones Unidas.*
*· Política Agraria Común (PAC) para el periodo 2023-2027.*
*· Estrategia «De la Granja a la Mesa» (2020) una de las en el marco del Pacto Verde Europeo.*
*· Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres.*
*· Ley 35/2011, de 4 de octubre, sobre Titularidad Compartida de las Explotaciones Agrarias. (cotitularidad).*
*· Programa Nacional de Desarrollo Rural (PNDR) (2014-2020).*
*· Plan para la Promoción de las Mujeres del Medio Rural (2015-2018).*
*· Plan Estratégico de Igualdad de Oportunidades (2018-2021).*
*· Ley 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de mujeres y hombres.*
*· Ley 17/2008 de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria de Euskadi.*
*· Ley 8/2015, de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras (Bserritarra).*
*· Ley 7/2022 de Desarrollo Rural de Euskadi.*
*· VII. Plan Para La Igualdad De Mujeres Y Hombres En La CAE.*



## Lo Lingüístico

Ante la creciente crítica a estos modelos de producción intensiva, vemos cada vez más cómo el agronegocio poco a poco se disfraza de verde y habla de agroecología. No es nuevo que existe una expropiación, y despolitización de las palabras y que en muchos casos nosotras mismas las vamos incorporando con este sentido en nuestro día a día. Es por esto que queremos visibilizarlas, tratando de hacer un ejercicio consciente de escribir otros-nuestros propios relatos.

Algunos ejemplos: productoras = personas que cultivan producen alimentos, personas campesinas o baserritaras. Producir = cultivar y cosechar alimentos; realizar conservas. Explotación = espacio agrícola, baserri, fincas. Productos = alimentos, conservas, quesos.

Compartir y resignificar conceptos básicos es clave para caminar juntas hacia una transición agroecológica desde una perspectiva feminista. Nuestra mochila se nutre de palabras que beben de los diversos movimientos y de las perspectivas ya mencionadas.

# Nola Mantentzen Da Gaur Egungo Elikadura-Sistema?

**(Zaintzaren icebergetik sustrai barazkietara)**

**Lur gaineko zatia, arlo produktiboa, esfera maskulinizatua:** ikusgarria, publikoa. Lan ordainduak, produktibotzat hartzen direnak eta aintzatespen soziala dutenak. Neurri-unitatea: dirua. Ur gainetik mantentzeko beheko zatia behar du, hau da, merkatutik kanpo egiten diren lanak.



**Lur azpiko zatia, arlo erreproduktiboa, bizitzaren iraunkortasuna, esfera feminizatua:** Etxeko lana eta zaintza lana, batez ere emakumeek ordainik gabe etxean egiten dutena. Ez du aintzatespen sozialik. Neurri-unitatea: denbora. Geruza ikusezinak daude: 1) gure jarduera ekonomikoaren eta bizitzaren oinarrian dauden ekosistemak, 2) ekonomia erreproduktiboa, zaintzaren ekonomia, ez da ikusten baina berari esker mantentzen dira ekonomia produktiboa eta bizitza, 3) irabazi asmorik gabeko ekonomia kolektiboa.

# ¿Cómo Se Sostiene El Sistema Alimentario Actual?

**(Del iceberg de los cuidados a las verduras de raíz)**

**La parte de arriba, lo productivo, esfera masculinizada:** lo visible, lo público. Trabajos remunerados, considerados productivos y con reconocimiento social. Unidad de medida: el dinero. Para flotar, necesita la parte de abajo, procesos de trabajo que se realizan fuera del mercado.



**La parte de abajo, lo reproductivo, sostenibilidad de la vida, esfera feminizada:** trabajo doméstico y de cuidados realizado principalmente en los hogares y por mujeres de manera no remunerada. Sin reconocimiento social. Unidad de medida: tiempo. Hay capas invisibles: 1) los ecosistemas en que basamos toda nuestra actividad económica y vital. 2) economía reproductiva, de los cuidados, que no se ve, pero es la que permite que la economía productiva y la vida existan. 3) economía colectiva sin ánimo de lucro.

**Icebergaren azpiko zatian nekazaria dago, emakume baserritarra, eredu agroekologikoa.** Hauek, eragin positiboa dute ekosistemetan. Zati bat monetizatzen bada ere, neurri-unitateak honako hauek dira: dirua, denbora, trukea. Ez du aintzatespen sozialik; batzuetan, begirada bukolikoa edo folklorista egoten da. Jarduera mantentzeko, monetizatu gabeko hainbat irizpide daude: izan daiteke autosufizientzia, bizimodu aukera bat edo lurraldea zaintzea. Jarduera horrek eragin zuzena du ondasun komunen zaintzan (lurra, haziak, bioaniztasuna) eta jakintzak berreskuratzean, baita bizitzaren iraunkortasunean ere.

**Zer uzten du sistemak alde batera?** Herrion eta pertsonon aniztasuna eta pluraltasuna. Horregatik intersekzionalitatearen azterketa aintzat hartu eta barneratu behar dugu. Arrazak, sexualitateak, klaseak, generoak eta beste kategoria batzuek, maila indibidual, sozial eta instituzionalean eta modu gainjarrian eta elkarreragilean, botere-iturri eta opresio-modu gisa funtzionatzeko duten moduari dagokio kontzeptua. Hau da, pertsona batek zapalkuntza pairatzen edo pribilegioa izaten du bere kategoria sozial desberdinen arabera. Bi ardatz berri sartzeak gure errealitatea begiratzen laguntzen digu. Landa-/hiri-eredua eta agroekologikoa/industria-eredua.

**Eta zer gertatzen da elikadura-sistema agroindustrialean?** Intersekzionalitatearen begiradak elikadura sisteman eta nekazaritza arloan ematen diren harremanak aztertzen laguntzen digu. Zeharkatzen gaituzten pribilegioen eta zapalkuntzen/erresistentzien arteko intersekzioak. Nekazariak, baserritarrak, migratuak, arrazializatuak eta abar izateagatik, emakume bezala non gauden jakiten laguntzen digu. Erakusten digu nola baldintzatzen gaituen hiritarra eta/edo baserritarra izateak eta eremu bi horien arteko botere-harreman historikoa zein den.

Aurreko irudiaren bitartez, ikus dezakegu elikadura zaintza-lanei eta egunerokoari lotutako jarduera dela, sistemak ikusten ez dituen eta gutxiesten dituen arloen parte. Horrek ariketa praktikoa egitera garamatza: Nola heltzen dira elikagaiak gure mahaira eta nondik datoz? Nork hazten ditu? Nork saltzen ditu? Nork prestatzen ditu?...

Gure ustez, elikadura eta elikadura-sistema eraldatzea ez da jaten duguna aldatzea soilik; aitzitik, baserriari lotutakoa aintzat hartzea eta ahalduntzea, eta lurraldearen ordenamendua eta lurraren jabetza eraldatzea ere bada. Halaber, hiriaren eta baserriaren arteko harremana, herrien arteko harremana eta elikadura-katea eraldatzea da, baita erosketa publikoetan tokiko ekoizpen baserritarra eta agroekologikoa lehenestea ere.

10. Intersekzionalitatea hitza Kimberlé Crenshaw-ek asmatu zuen. Hura emakume beltzen zapalkuntza aztertuz hasi zen ikuspegi teoriko-politikoa da.

**Debajo del iceberg está el trabajo campesino, las mujeres baserritarras, el modelo agroecológico.** Con impacto positivo en los ecosistemas. Aun habiendo una parte monetizada, las unidades de medida: dinero, tiempo, trueque. Sin reconocimiento social, a veces una mirada bucólica, folklórizada. Varios criterios no monetarios se tienen en cuenta para mantener la actividad: puede ser la autosuficiencia, una opción de vida o el cuidado del territorio. Hay un impacto directo de la actividad en el cuidado de bienes comunes (tierra, semillas, diversidad) y de la recuperación de saberes, así como de la sostenibilidad de la vida.

**¿Qué se deja el sistema en los márgenes?** La diversidad y la pluralidad de los pueblos y personas que somos. Para ello es importante reconocer e incorporar el análisis de la **interseccionalidad**[10]. Esta se refiere a las formas superpuestas e interactivas en que la raza, la sexualidad, la clase, el género y otras categorías de diferencia actúan como múltiples fuentes de poder y formas de opresión a nivel individual, social e institucional. Es el fenómeno por el cual cada persona sufre opresión u ostenta privilegio en base a su pertenencia a múltiples categorías sociales. Incluir dos nuevos ejes, nos ayuda a mirar nuestra realidad. Rural/urbano y modelo agroecológico/modelo industrial.

**¿Y qué ocurre en el sistema alimentario agroindustrial?** La mirada de la interseccionalidad nos permite apreciar detalles para el análisis de las relaciones que se dan en el sistema alimentario y en el mundo agrario. Intersecciones entre los privilegios Vs opresiones/resistencias que nos atraviesan. Nos permite saber dónde estamos como mujeres, por ser campesinas, rurales, migradas, racializadas, etc. Cómo nos atraviesa la condición de ser urbana y/o rural y la relación de poder histórica entre estos dos espacios.

A través de la imagen anterior vemos cómo la alimentación es una actividad vinculada a los cuidados y a lo cotidiano, a los ámbitos invisibilizados y desvalorizados del sistema. Esto nos permite promover y crear un ejercicio práctico para todas en base a averiguar; ¿Cómo llegan los alimentos a nuestra mesa y de dónde vienen? ¿Quién los cultiva? ¿Quién los vende? ¿Quién los cocina?,…

Para nosotras transformar la alimentación y el sistema alimentario no es solo cambiar lo que comes, sino dar valor y poder a la ruralidad, transformar la ordenación del territorio y la tenencia de la tierra, así como las relaciones entre lo urbano y lo rural, con los otros Estados/pueblos, generar cambios en la cadena alimentaria y priorizar la producción campesina agroecológica de cercanía en las compras públicas.

10. La interseccionalidad, acuñada por Kimberlé Crenshaw, es una perspectiva teórica-política que comenzó como una exploración de la opresión a las mujeres negras.

# 3. LUR HARTU: EMAKUME BASERRITARRAK ETA ZAINTZA LANAK

## Emakume Baserritarrak, Lan Produktiboa eta Erreproduktiboa

**Baserriko bizi moduaren eraldaketa**
Baserriaren eredu tradizionalak familia zabalean eta askotariko ekoizpen-jardueretan oinarritzen da. Hala, lurraldeko ondasunak erabili izan ditu eta orekan mantendu izan da ingurumenarekin. Baina bizimodu horrek hainbat eraldaketa izan ditu, eta horien artean industrializazioa izan da nabarmenena, nekazaritza-ekoizpena intentsifikatzeko politikak ekarri baititu. Hain zuzen ere, politika horien ondorioz baserriko bizimodua ia galdu da. Ezin ditugu aldaketa horiek guztiak azaldu, oso konplexuak baitira, eta, batez ere, emakume baserritarren egoera nola aldatu den kontuan hartu nahi badugu. Hortaz, azkenaldian industrializazioaren eraginez eman diren aldaketen berrikuspen laburra egingo dugu. Beste eredu landatar batzuetan bezalaxe, emakumeak giltzarri izan dira bizimodu hori eta haren atzean dauden jakintzan gordetzeari dagokionez.

Hona hemen identifikatu ditugun baldintza eta ezaugarri batzuk:
**Ekarpen ekonomikoa/baserriaren feminizazioa:** industrializazio garaian gizon asko siderurgiara joan ziren esku-lan gisa. Horrek indartu zuen emakumeek baserriko lanean eta bizitza mantentzan zuten garrantzia. Izan ere, etxeko ekonomiako eta nekazaritzako lanak emakumeek egiten zituzten neurri handi batean: plazan saldu, ortua zaindu, lurra landu, animaliak jetzi, jatekoa egin, garbitu, haziak gorde... Baserria etxeko ekonomia izan zen, baina produkzio eta erreprodukzio eginkizunak zituen. *"Baserria beti izan dugu martxan emakumeok"*.

**Familia zabalaren etengabeko laguntza/interdependentzia:** emakumeak baserriaren instituzioaren jarraipenaren zaindariak dira eta, horri esker, baserriak mende askoz iraun du. Haiek dira baserrian geratzen direnak gizonak kanpora lan egitera doazenean. *"Izeko senarraren jabetzarekin ezkondu zen, bertan gogor egin zuen lan; horretatik biziko bazina bezala lan egiten zen"*.

**Baserriaren zaindariak eta beren mundu-ikuskera:** emakumeak baserriaren instituzioaren jarraipenaren zaindariak dira eta, horri esker, baserriak mende askoz iraun du. Haiek dira baserrian geratzen direnak gizonak kanpora lan egitera doazenean. *"Izeko senarraren jabetzarekin ezkondu zen, bertan gogor egin zuen lan; horretatik biziko bazina bezala lan egiten zen"*.

# 3. BAJAR A LA TIERRA: MUJERES BASERRITARRA Y LOS CUIDADOS

## Mujeres Baserritarras, Trabajo Productivo Y Reproductivo

### Transformación de la vida en el baserri

El modelo tradicional de baserri basado en familias extensas con actividades productivas muy diversas y basadas en los bienes del territorio y donde se manejaba un equilibrio con el entorno y medio ambiente, ha tenido diferentes momentos de transformación en los que destaca la industrialización y la generación de políticas para la intensificación de la producción agraria, llegando hasta la actualidad donde prácticamente se ha perdido. Es imposible abordar todos estos cambios por su complejidad y, especialmente, si queremos tener en cuenta las condiciones de las mujeres baserritarras antes y después, por lo que hacemos un breve y somero análisis de las características que se han dado en esta última época, **con la industrialización que se refleja en lo que hoy vivimos.** Al igual que en otros modelos campesinos las mujeres han sido claves en sostener esta forma de vida y los saberes que lo sustentan.

Las condiciones y características que hemos podido identificar son:

**Contribución económica/Feminización del baserri:** en el período de la industrialización hay una salida de hombres como mano de obra cualificada a la siderurgia que afianza más la importancia de las mujeres para sostener la vida y el trabajo agrario en el baserri. Las tareas de la economía doméstica y el trabajo agrícola se sostienen en gran parte por las mujeres. Venden en la plaza, cuidan la huerta, labran el campo, ordeñan, elaboran, cocinan, limpian, seleccionan las semillas. El baserri fue una economía doméstica con funciones de producción y reproducción integradas.*" El caserío siempre lo hemos tenido en marcha nosotras".*

**Ayuda continua a la familia extensa/interdependencia:** las mujeres son las responsables del cuidado de todas las personas del caserío (infancia, personas ancianas, personas dependientes). El trabajo reproductivo son las tareas domésticas referidas a la higiene, limpieza y mantenimiento del baserri, así como la cocina y la comida. Para desarrollar todas las tareas es clave la coordinación de este trabajo entre las diferentes generaciones abuelas, madres, hijas, tías, etc. *"Si me preguntas que cuando cuido, es todo el rato, esa es mi vida", "Toda mi vida ha sido estar ayudando a alguien o estar trabajando"*

**Naturarekiko lotura:** emakumeak dira, batez ere, “ama lurra”, “ama natura” jakintza eta ezagutza iturri gisa errespetatzen dutenak. Ingurumena zaintzeko, errespetatzeko eta babesteko balioak emakumeen begiradan eta sentipenean daude errotuta, gizonenean baino gehiago. *“lurrak dena ematen dizu”.*

**Oinordetza:** tradizioz, oinordetza lehensemearentzat zen, baina, kasu batzuetan, familiako baldintzak aldatzen zirelako edo nagusiak zaintzeak zuen garrantziagatik, emakumeak izaten ziren oinorde. Horregatik, zenbait kasutan ondarea emakumeei eman izan zaie, baserrian eginda lana eskertzeko.*“guri etxea eman digute eta hura zaindu behar dugu”.*

**Salmenta plazan, esparru landatar-hiritarrerako ate gisa:** emakumeek besteekin eta lurraldearekin duten harremana garatzeko dituzten eremu kolektiboak izan dira batez ere plazak eta azokak. *“Plazan, etxean bezala. Nik gustuko nuen. Dirua irabazteko zen, baina baita kuadrillarekin eta lagunekin egoteko ere...! Aste osoa egoten nintzen horren zain”.*

**Aldaketak sustatzen dituzte belaunaldi berrientzat:** emakume askok beren seme-alabek ikasketak izan ditzaten saiatzen dira, baserritik kanpo lan egiteko eta bizitzeko aukera izan dezaten. Baserriko lanaren laztasunaren eta gizartearen modernizazioaren ondorioz, hiriak lan hobeak eta diru-sarrera handiagoak izateko aukera bakarra dirudi. Eta emakumeen kasuan, independentzia handiagoa eta lan erreproduktibo eta produktiboen karga txikiagoa izateko aukera ere. Elementu horien eraginez, nekazaritzako ekoizpenean dihardun familia zabalaren eredua murrizten ari da.

### Baserriko eta ustiategiko lanaren banaketa sexuala

**Lanaren banaketa sexuala** da gizarte bakoitzak nola antolatzen duen lanaren banaketa gizonen eta emakumeen artean. Sexu bakoitzarentzat egokiak diren genero rolen arabera banatzen da **lan produktiboa eta erreproduktiboa.** Gizonak eremu publikoan egon ohi dira (lan produktiboa). Horretan erabaki politikoak, sozialak eta ekonomikoak hartzen dituzte. Emakumeak, aldiz, eremu pribatuan egoten dira (lan erreproduktiboa) eta bertan zaintza eta hazkuntza lanak egiten dituzte. Hori oso barneratuta dugun eraikuntza soziala da eta ez, maiz uste den bezala, naturala den zerbait. Egokitutako eginkizunek aintzatespen sozial desberdina dute, eta batzuei besteei baino **botere** gehiago ematen die. Hortaz, desparekotasun egoeran kokatzen ditu lana egiten duten pertsonak. **Etxeko lanak eta zaintza lanak emakumeei egokitu zaizkie,** eta lan horiek ez dira ikusiak edo aintzatetsiak izan. Gainera, ez dira lan ordainduak. Gutxiespen hori eremu publikora eta lan merkatura ere hedatzen da. Izan ere, emakumeek lan prekarioenak eta zaintza karga handieneko lanak egin izan dituzte. Gaur egun, batez ere emakume migratuek egiten dituzte lan horiek.

**Guardianas del baserri y su cosmovisión:** las mujeres son las guardianas de la continuidad de la institución del caserío que ha permitido que perviva a través de muchos siglos de historia. Son las que quedan cuando los hombres se van a trabajar fuera. *"La otra tía se casó a la propiedad de su marido, ella trabajó duro allí, se trabajaba como que vivieses de ello"*

**Conexión con la naturaleza:** "la madre tierra", "madre naturaleza" como fuentes de saber y conocimiento que es reconocida y respetada principalmente por las mujeres. Valores como cuidado, respeto, protección y preservación de un entorno están más incorporados en la mirada y sentir de las mujeres que en la de los hombres. *"la tierra te da todo"*

**Herencia:** la Herencia era tradicionalmente para los primogénitos varones, aunque, en algunos casos, debido al cambio en las condiciones de la familia y por la relevancia y valoración del cuidado a las personas mayores, llegaba a las mujeres. Por esto existen casos donde se dan donaciones de las ganancias y los bienes patrimoniales a las mujeres al reconocer su labor en el baserri. *"a nosotras se nos ha dado la casa y tenemos que cuidar de ella."*.

**Vendeja/ venta en la plaza como puerta al mundo rur-urbano (rural+urbano):** los espacios colectivos de relación y conexión con otras y otros, con el territorio al que pertenecen las mujeres se da sobre todo en la plaza y mercados. *"En la plaza, como en casa. A mí me gustaba. ¡Era dinero, pero también era la cuadrilla y cuántas amistades…! "Esperaba toda la semana para poder ir"*.

**Promueven cambios para las nuevas generaciones;** muchas de las mujeres promueven que sus hijos e hijas tengan estudios y oportunidades para trabajar y vivir fuera del baserri. La dureza del trabajo y una creciente modernización de la sociedad donde lo urbano se ve como la única oportunidad de tener empleos con más ingresos económicos, y en el caso de las mujeres una mayor independencia y menor carga de los distintos trabajos reproductivos y productivos, hace que se empiecen a reducir las características previas de familias extensas dedicadas a la producción agraria.

### División sexual del trabajo en el baserri y en las fincas

**La división sexual del trabajo** es cómo organiza cada sociedad la distribución del trabajo entre los hombres y las mujeres. Según los roles de género asignados que se consideran apropiados para cada sexo se da **trabajo productivo y reproductivo.** Los hombres están en el espacio público (trabajo productivo), donde se toman las decisiones políticas, sociales y económicas, mientras que las mujeres están en el espacio privado (trabajo de reproducción) donde llevan a cabo el trabajo de cuidados y crianza. Una construcción social muy interiorizada aunque a veces se confunde con algo natural.

Teoriak horrek, bada, zaintza lanen eta lan erreproduktiboen gutxiespena eta ez ikusia ulertzeko balio digu, baina, baserri eremuan, azterketa hura mugatua da. Izan ere, etxeko lanaren kontzeptua ondo moldatzen da hirietako gizarte industrializatuetara, bertan familia nuklearra baita etxea antolatzeko oinarrizko modua eta soldatapeko lana familiaren diru-iturri nagusia da. Baina ezaugarri horiek eta lan produktiboaren eta erreproduktiboaren arteko aldea oso bestelakoa da baserri eta nekazaritza eremuan.

Baserriko testuinguruan eta nekazaritzako ekoizpenean honako hau aurkitzen dugu:
**Lan produktiboaren eta erreproduktiboaren arteko mugak lausoak dira.** Baserri eremuan ez gaude kanpoko soldataren menpe soilik, izan ere elikagai gehienak bertan ekoizten dira, eta gainera saldu edo trukatu egiten dira. Lan erreproduktiboak lan produktiboekin batera egiten dira maiz: emakumeek titia ematen dute uzta jaso, inausi, abereak larreratu, fruituak aukeratu, lurra landu edo ureztatu bitartean.

**Jarduera produktiboen eta erreproduktiboen denborak eta espazioak gainjartzen dira.** Emakumeen jarduera produktiboak etxeko jardueren hedadura dira, eta alderantziz. Horren ondorioz, ez da emakumeen ekarpen ekonomikoa behar bezala aintzat hartzen. Gainera, gure lanaldiak luzatzen dira eta zaila egiten zaigu dena bateragarri egitea. Ekoizpena, kontsumoa eta etxeko gauzak batera ematen dira.

**Denbora gehiago jarduera erreproduktiboan.** Baserri eremuan denbora eta ahalegin fisiko handiagoa ematen zaie zaintza lanei. Familiaren kontsumorako ekoizpenak ere denbora gehiago hartzen du, ortuak eta larreak urtean zehar mantendu, haziak aukeratu edo animaliak hazi behar direlako. Haurren hazkuntza eta nagusien zaintza konplexuagoa da, zerbitzu publiko gutxiago eta distantzia luzeagoak daudelako (garraioa, osasun-arreta, hezkuntza, aisia).

**Buruko karga eta lan ugaritasuna.** Aurretik aipatu den bezala lanaldien intentsifikazioa bizitzaren arlo desberdinetakoak diren lan ugari egin behar izatearen emaitza da. Horrek, bada, buruko karga eragiten digu emakumeei. Maiz, nekazaritza lanekin batera (uzta egitea, aletzea, jeztea) hazkuntzari eta zaintzari lotutako beste batzuk lan batzuk egin behar izaten ditugu (bularra ematea, janaria prestatzea, hitzordu medikoak, haurren etxerako lanetan laguntzea).

**Denboraren erabilera desberdina.** Baserri eremuan lotura handiagoa izaten dugu urtaroekin eta sasoiekin. Gaur egun, sistema ekonomiko kapitalistak eta nagusi den bizimoduak denboraren antolakuntza baldintzatzen dute eta, esate baterako, elikatzeko modua ere. Horren adibide gisa, pandemia garaian jende asko kontsumo taldeetara jo zuen, besteak beste, jatekoa egiteko denbora gehiago zegoelako, eta gaur egun berriro murriztu da horrelako otzarak hartzen dituzten pertsonen kopurua.

Los roles asignados tienen distinta valoración social, dando más **poder** a unos sobre otros y por tanto generando **desigualdad** para las personas que los desarrollan. **El trabajo doméstico y de cuidados se ha asignado a las mujeres,** ha sido invisibilizado y no reconocido, además de ser un trabajo no remunerado. La desvalorización se desplaza al espacio público y al mercado laboral, donde son las mujeres, ahora la mayoría mujeres migradas, quienes desempeñan este tipo de empleos más precarios y con una fuerte carga de cuidados.

Aunque la esencia de esta teoría no sirve para entender la desvalorización e invisibilización de los trabajos del cuidado y los llamados reproductivos, es importante ver cómo en el ámbito rural este análisis es limitado. El concepto de trabajo doméstico encaja bien para las sociedades urbanas industrializadas dado que la familia nuclear era la forma básica de organización doméstica y el trabajo asalariado constituía la fuente principal de subsistencia familiar. Pero estas características y la diferencia entre trabajo productivo y reproductivo, es muy diferente en el medio rural y agrario.

En el contexto rural y en la producción agraria nos encontramos en la actualidad con:
**Fronteras difusas entre trabajo productivo y reproductivo.** En el medio rural no dependemos sólo del salario externo para la provisión de materias primas, ya que los alimentos principales son cultivados para el autoconsumo además de para la venta directa o trueque. Los trabajos reproductivos se hacen en muchos casos a la vez que los denominados productivos: las mujeres amamantan, mientras cosechan, deshojan, podan, pastorean, ordeñan, seleccionan frutos, aran la tierra o conducen el riego.

**Solapamiento temporal y espacial de actividades productivas y reproductivas.** Las actividades productivas de las mujeres son una extensión de las actividades domésticas y viceversa. Esto supone la invisibilización de los aportes económicos de las mujeres y la intensificación de nuestras jornadas y del esfuerzo para compatibilizar todo. La producción, el hogar y el consumo se dan a la vez.

**Mayor dedicación a la actividad reproductiva.** En el medio rural se dedica más tiempo y esfuerzo físico a los cuidados. La producción para el consumo familiar lleva más tiempo también, por el mantenimiento de huertas, pastos y paisajes todo el año, la selección de semillas o la cría de animales pequeños. La crianza y cuidado de mayores se vuelve más compleja al tener pocos servicios públicos y distancias lejanas (transporte, sanidad, educativas, ocio).

**Carga mental y multitrabajo.** Como se menciona anteriormente, la intensificación de las jornadas se debe a la realización de multitareas que pertenecen a distintas esferas de la vida, lo que conlleva una carga mental para las mujeres. Frecuentemente las tareas agrícolas (cosechar, desgranar, ordeñar) están acompañadas de actividades de crianza y de cuidado hacia las personas dependientes (amamantar, cocinar, citas médicas, apoyar tareas escolares…).

**Nekazaritzako eta nekazaritzaz kanpoko jarduera ugaritasuna/ibilbide desberdinak.** Gure proiektu agroekologikoetako askok pairatzen duten prekarietate egoera eta erakunde publikoen laguntza urria dela eta, nekazaritzako eta nekazaritzaz kanpoko jarduerak uztartu behar izaten ditugu, soldatapeko lanak eginez eta autoenpleguko beste alternatiba batzuk garatuz. Emakume baserritarron kasuan, zaintza lanekin bateragarri egiteko moduko lan ordainduak aukeratzen ditugu eta, aldi berean, ustiategiko lana egiten dugu, gure nekazaritza proiektuari jarraipena emateko.

**Autokontsumoa.** Emakume baserritarrok egiten dugun ekoizpenaren zati handi bat etxean kontsumitzeko izaten da. Merkatuaren logikak ez du baldintza hori aintzat hartzen: lehenik, kontabilizatzen ez delako, baina hura ekarpen garrantzitsua da bizitza mantentzeko eta familien osasuna zaintzeko; eta, bigarrenik, egiten dugun lan ez ordainduaren zati handi bat delako.

**Gizonak traktorea eta nik motokultorea.** Nekazaritza-sektorea modernizatzean garatu den teknologia gizonen beharretara orientatu da, haiek izan baitira ekoizpenaren intentsifikazio eta industrializazio prozesu horren protagonistak. Gure ustiategiak, aldiz, txikiagoak direnez eta diru-sarrera txikiagokoak dituztenez, ez dira hainbeste teknifikatu.

**Lanak gutxiesten dira.** Emakumeok gizonei egokitutako lanak egiten ditugunean, lan horiek aintzatespena galtzen dute eta “baserriko eginkizun” bilakatzen dira. Gizon ekoizle batekin lan egiten badugu, gure eginkizuna errazagotzat eta garrantzi gutxiagokotzat hartzen da. Hala, ekonomian dugun parte hartzea ez da behar bezala aintzat hartzen eta, batzuetan, ekoizpen prozesuaren kontroletik baztertzen zaigu, gure lana “laguntza” gisa hartuz.

**Pertzepzioa eta autoestimu baxua.** Horren ondorioz, “ezgauza” garelako ideia barneratu dugu eta uste dugu “ez dugula asko emateko”. Hala, familian, gizartean eta ekonomian gure lanak duen aintzatespen txikia legitimatzen da.

**Aisialdirako eta autozaintzarako eremu gutxi.** Lan gainkarga identifikatzen badugu ere, aisialdirako eta autozaintzarako aukerak sortzeko zailtasunak ditugu.



**Uso del tiempo diferente.** En el medio rural vivimos más conectadas a las estaciones y temporadas. Actualmente los sistemas económicos capitalistas y la forma de vida predominante condicionan la distribución del tiempo y entre otras cosas las maneras de alimentarnos. Un ejemplo de ello fue la gran demanda de cestas de alimentos que se dio durante la pandemia hacia los grupos de consumo, debido a que había más tiempo para cocinar, y que actualmente han vuelto a reducirse de forma substancial.

**Pluriactividad agrícola y no agrícola/distintos itinerarios.** La situación de precariedad y falta de apoyo institucional, en la que están muchos de nuestros proyectos y fincas de producción agroecológica nos obliga a combinar ocupaciones agrícolas y no agrícolas, con empleos asalariados u otro tipo de alternativas de autoempleo. En el caso de nosotras, las mujeres baserritarras, elegimos trabajos remunerados según la posibilidad de complementarlos con los cuidados y mantenemos de forma simultánea el trabajo en la finca lo que posibilita la continuidad del proyecto agrario.

**Autoconsumo.** Una de las características de la producción que hacemos las mujeres baserritarras, es que una parte importante de ella se destina al consumo propio o familiar. Esta circunstancia queda invisibilizada en la lógica de mercado: en primer lugar, porque no es contabilizada pero es un aporte significativo para la sostenibilidad de la vida y para cuidar de la salud de nuestras familias; y segundo, porque es una parte importante del trabajo no remunerado que desarrollamos.

**El tractor lo lleva el hombre y yo el motocultor.** A medida que el sector agrario se ha mecanizado, este tipo de tecnología se ha diseñado y orientado hacia los hombres, dado que son quienes han liderado la intensificación e industrialización de la producción. En cambio, nuestras producciones por ser más pequeñas, con ingresos más limitados y con un carácter de autoconsumo están menos tecnificadas.

**Se infravaloran los trabajos.** Cuando las mujeres asumimos tareas habitualmente asignadas a los hombres, estas tareas pierden valor social y se vuelven “tareas del baserri”. Si trabajamos con un productor principal hombre, nuestras actividades productivas son vistas como tareas sencillas y menores. Hay un escaso reconocimiento de nuestra participación económica y a veces nos excluye del control del proceso productivo al ser considerado solamente “una ayuda o apoyo”.

**Percepción y autoestima baja.** Esto nos ha llevado a internalizar la idea y creencia, de que “somos poca cosa” y valorar que “no tenemos mucho que aportar”. Legitimando así el poco reconocimiento familiar, social y económico del trabajo que históricamente venimos aportando.

**Con pocos espacios de ocio y autocuidado.** Aunque identificamos la sobrecarga de trabajo, nos cuesta generar tiempos para el ocio y el autocuidado.

**Antolakuntza eremuen eta parte-hartze politikoaren garrantzia.** Lanaren banaketa horren beste ezaugarri historiko bat da emakumeek ez dugula rol aktiboa izan erakundeetan eta parte-hartze politikoan. Egoera hori aldatuz joan da gure prozesu pertsonal eta kolektiboen bitartez. Agroekologiaren arloko prozesu politikoetan eta sindikatuetan parte hartzen dugun emakumeok aipatutako pertzepzioetako asko aldatu ditugu gure lanaren inguruan. Gure eguneroko lana produktibotzat hartzen dugu, landa eremuetako dimentsio ekonomikoaren barruan ikusten dugu eta eskubideak ematen dizkigula ulertzen dugu. Lan erreproduktiboa eta zaintza lana merkatuaren logika gainditzen duen praktika bezala baloratzen dugu, eta bizi-ereduen eta elikadura-sistemen eraldaketaren muina izan behar dela uste dugu.

Horregatik, guretzat, **zaintza lanak eta bizitzaren iraunkortasuna** pertsonen, landareen eta animalien premiak betetzean dautza; ez irabazietan oinarritutako logika batetik, baizik eta izaki bizidunei bizi kalitate hobea eta ongizatezko bizitza emateko. Beraz, emakume baserritarrok, agroekologiaren aldekoak garen heinean, lan produktibo eta erreproduktiboen bitartez egiten dugu gure ekarpena.

## Zaintza Lanak, Guztion Onerako Lan Gisa

### Zaintzak bizitzaren erdigunean eta elikadura zaintzaren erdigunean. Eskubide kolektiboetan oinarritutako ikuspegia

Kontzeptu honen aberastasuna eta garrantzia dela eta, zaila da "zaintzak" ideia bakar baten bitartez definitzea. Hortaz, gure ustez, **zaintzak dira bizitza betea mantentzeko ezinbestekoak diren jarduerak,** esate baterako: arreta ematea, entzutea, kontsolatzea, irakastea, heriotzaren unean laguntzea, erditzea, umeak haztea, elikatzea, jatekoa egitea, garbitzea, jostea, sendatzea, birziklatzea, berrerabiltzea, zaintza kolektiboko sareak sortzea, manifestazioetara joatea edo giza eskubideen aldeko edo planetaren aldeko jardueretan parte hartzea.

Zaintzari buruzko zenbait teoria daude, eta horiek lantzeko hainbat maila ere:

**1. Nork bere burua zaintzea edo autozaintza.**

- Maila fisikoa: elikadura, higienea, atsedena, ariketa fisikoa, osasunaren autogestioa, heriotza eta dolua.
- Maila emozionala: emozioen erregulazioa eta oreka, autoestimua, komunikazio ez bortitza.
- Maila okupazionala: jolasa, ikaskuntza, lana, gozamena.
- Maila soziala: jendez inguratzea.
- Maila espirituala: bizitzaren benetako zentzuari buruzko ikuspegi desberdinak.

**2. Gertuko pertsonak zaintzea.** Familia, lagunak, auzokideak eta gure komunitatea.



**La importancia de los espacios organizativos y la participación política.** Otra característica histórica de esta división en los trabajos es el hecho de que las mujeres no teníamos un papel activo en las organizaciones y en la participación política. Situación que vamos cambiando dada la importancia para nuestros procesos personales y colectivos. Las mujeres que participamos en procesos políticos agroecológicos, o sindicales hemos cambiado muchas de las percepciones ya mencionadas sobre el trabajo que desarrollamos. Concebimos nuestro trabajo cotidiano como algo productivo, integrado a la dimensión económica de los espacios rurales y digno de derechos. Valoramos el trabajo reproductivo y de cuidados como una práctica que trasciende la lógica mercantil, pero que debe ser el centro de la transformación de los modelos de vida y de los sistemas alimentarios.

Es por esto que concebimos **las tareas de cuidado y sostenibilidad de la vida** como la atención de las necesidades de las personas, las plantas y los animales, no desde una lógica lucrativa, sino desde la intención de proporcionar a los seres vivos una mejor calidad de vida o una vida en bienestar. Por tanto, las mujeres baserritarras, desde nuestra apuesta por la agroecología, aportamos a ello desarrollando conjuntamente tareas productivas y reproductivas.

# Los Cuidados Como Bien Común

### Los cuidados en el centro de la vida y el alimento en el centro de los cuidados. Enfoque de derechos colectivos

Dada la riqueza e importancia de este concepto, es difícil definir una sola idea de “cuidados”, pero nos animamos a proponer, los **cuidados como aquellas actividades imprescindibles para al mantenimiento de una vida plena,** por ejemplo: atender, escuchar, consolar, enseñar, acompañar en la muerte, parir, criar, alimentar, cocinar, lavar, coser, sanar, reciclar, reutilizar, generar redes de cuidados colectivos, asistir a manifestaciones o participar en actividades para mejorar los derechos humanos y la conservación del planeta.

Hay diferentes teorías sobre los cuidados y distintos niveles desde donde abordarlos:

**1. Autocuidado o cuidado personal.**

- Nivel físico: alimentación, higiene, descanso, ejercicio, autogestión de la salud, muerte y duelo.
- Nivel emocional: regulación y equilibrio de emociones; autoestima, comunicación no violenta.
- Nivel ocupacional: el juego, el aprendizaje, el trabajo, el placer.
- Nivel social: rodearnos de gente.
- Nivel espiritual: diferentes perspectivas del sentido más profundo de la vida.

**2. Cuidado de personas cercanas.** Familia, amistades, vecindario y comunidad donde vivimos.

**3. Urrun dagoena zaintzea, pertsonak zein mundu mailako egoerak.** Gure ekintzek planetako beste herrialde edo leku batzuetan dituzten ondorioak aintzat hartzea. Internazionalismotik elkartasuneko jarduerak garatzea.
**4. Animalia, haziak, landareak eta lurra zaintzea.** Gure ekodependentzia aintzat hartzea.
**5. Ingurua, lurraldea eta planeta zaintzea.** Planeta mugatua dugula ulertzea. Bizi garen eremuetan ondasun naturalak daude eta horiek zaindu behar ditugu, guztionak baitira. Herri biziak sustatzea, gure baserrietan proiektu agroekologikoak abian jartzea, eta tokian merkaturatzeko dinamiken bitartez lurraldeko ekonomia eta gizarte ehuna dinamizatzea.
**6. Jakintzak eta ideiak zaintzea.** Ahoz transmititzen diren jakintzak berreskuratzea eta aintzat hartzea, eta pentsamolde, sinesmen eta sentipen desberdinak onartzea. Pentsamendu kritikoa sustatzea.

**"Zaintzari"** buruzko hainbat azterketa eta teoriatan ez da begirada baserritarra, landatarra edo nekazaria ageri, baina gure hausnarketak biltzen dituzten proposamenak ere aurkitzen ditugu:

**1. Sumak Kawsay[11], bizitze ona, ondo bizitzea, bizitze mamitsua edo betetasunez bizitzea:** Abya Yalatik dator[12], bestelako munduak irudikatzeko eta jatorrizko herrien mundu-ikuskerak berreskuratzeko, eta guztion etxea zaintzeaz hitz egiten du. Bizi-filosofia horretan ez dago goi-mailako edo behe-mailako izakirik; aitzitik, gure inguruko bioaniztasunarekin sinkronian bizitzea da gakoa, izaki osagarri eta interdependente gisa, eta elkarrekikotasunez. Agroekologiaren aldeko apustuan ikuspegi horren funtsa eta bizitza ulertzeko modua jasotzen dugu.



11. Sumak Kawsay Kitxua herriaren mundu-ikuskeratik datorren kontzeptua da. Sumak hitzak ideala, ederra, ona, betea esan nahi du; eta kawsay bizitza da; hau da, bizitza duina, unibertsoarekin eta gizakiarekin armonian eta orekan. Beraz, Sumak Kawsay bizitzaren betetasuna da. https://www.un.org/esa/socdev/unpfii/documents/El%20Sumak%20Kawsay-AriruumaKowii.pdf
12. Abya Yala izena, euskaraz Lur Heldua, Lur Bizia edo Loratzen den Lurra, Kolonbiako eta Panamako Kuna herriak erabiltzen zuen, Amerikar Kontinenteko lurraldeari deitzeko.

**3. Cuidado de lo lejano, personas o situaciones globales.** Reconociendo el impacto que nuestras acciones tienen en otros pueblos y lugares del planeta. La realización de actividades solidarias desde el internacionalismo.
**4. Cuidado de animales, semillas, plantas y tierra.** Reconociendo nuestra eco dependencia.
**5. Cuidado del espacio, territorio y planeta.** La consciencia de que tenemos un planeta finito. Identificarnos parte de los espacios colectivos donde vivimos que están habitados de bienes naturales que debemos cuidar, porque son bienes comunes. Apostamos por pueblos vivos con proyectos agroecológicos en nuestros baserris y dinámicas de comercialización local que permiten dinamizar la economía y las redes sociales en nuestros territorios.
**6. Cuidado de saberes e ideas.** Retomando y valorando los saberes que son trasmitidos de forma oral y reconociendo la diversidad de formas de pensar, de creer y de sentir. Promoviendo el pensamiento crítico.

A pesar de que en muchos de los análisis y teorías sobre **"los cuidados"**, no está muy presente la mirada campesina, rural y agraria, hemos encontrado propuestas en las que confluyen nuestras reflexiones:

**1. Sumak Kawsay [11], el vivir bien, el buen vivir, vivir sabroso o en plenitud:** llega desde Abya Yala[12] para imaginar otros mundos y retomar las cosmovisiones de los pueblos originarios. Hablan del cuidado de la casa común, filosofía de vida en el cual no hay seres superiores o inferiores, es convivir en sincronía con la biodiversidad que nos rodea como seres complementarios, interdependientes y recíprocos. Sentimos que en nuestra apuesta por la agroecología se recoge la esencia y forma de entender la vida.

11. Sumak Kawsay término que viene de la cosmovisión Kichwa, Sumak significa lo ideal, lo hermoso, lo bueno, la realización; y kawsay, es la vida, en referencia a una vida digna, en armonía y equilibrio con el universo y el ser humano, en síntesis, el sumak kawsay significa la plenitud de la vida. https://www.un.org/esa/socdev/unpfii/documents/El%20Sumak%20Kawsay-Ariruma Kowii.pdf
12. Abya Yala que significa Tierra Madura, Tierra Viva o Tierra en Florecimiento, fue el término utilizado por los Kuna, pueblo originario que habita en Colombia y Panamá', para designar al territorio comprendido por el Continente Americano.

**2. Ondasun komunen defentsa,** azken hamarkadetan kapitalismoaren inposizioarekin kritikoak diren hainbat borroka eta gizarte-mugimendutatik sortutako proposamena da. Haien leloen artean honako hau dugu: "mundua ez da salerosgaia". Baserritarrontzat garrantzitsua da "elikagaiak desmerkantilizatzea" eta Ondasun Komunak edo "bizi iturriak" (ura, haziak, basoak, lurra, ezagutzak eta zaintzak) eskuratzeko aukera bermatzea, Izan ere, horiek eskuragarriak izan behar dira eta guztion onaren ikuspegitik kudeatu behar dira, eta ez txarto deituriko "interes orokorraren" ikuspegitik. Zaintzak gizarte- eta ingurumen-ikuspegi batetik aztertzean, ohartzen gara instituzioetatik eta merkatutik sustatutako gaur egungo ereduan prekarietatea eta pertsonen eta ondasun naturalen esplotazioa direla nagusi, eta bizitza bera narriatzen ari dela. Zaintzak bizitza mantentzen du.

**3. Zaintzak politika egiteko bestelako modu gisa.** 2019ko M8ko greba feministan, zaintzak kalera eta eztabaida politikoetara eraman zituzten. Hala, bizitzari erabateko lehentasuna ematea eta zaintza-lanak kolektibizatzearen garrantzia aldarrikatzen zuten. Honako lelo hau zuten: "indarkeriaren, desparekotasunaren, prekarietatearen, sexu-eredu hegemonikoen, lanaren banaketa sexualaren, kontsumo-ereduaren, familia patriarkalaren, jakintzen hierarkiaren, arrazakeriaren, edertasun kanonaren eta zapalkuntza guztien aurrean, bizitza erdigunean jarri nahi dugu".

2023ko martxokoan, aldiz, zaintza-lanen merkantilizazioa salatu da, eta "zaintza eskubide kolektiboa" alternatiba gisa proposatu dute. Izan ere, bizitza mantentzeko ardura kolektiboa da zaintza. Gizonen ardura eza eta zaintzaren merkantilizazioa ere salatu dituzte, baita bizitza mantentzen duten zaintza lanak emakumeek eta batez ere emakume migratuek eta arrazializatuek egiten dituztela ere.

Euskal Herriko mugimendu feministak greba orokorra iragarri du 2023ko azaroaren 30erako, zaintza-sistema publiko eta komunitarioa aldarrikatzeko. Guk, emakume baserritar gisa, gure proposamenak egin ditugu, zaintzaren ikuspegia pertsonen zaintzaz harago eramateko eta horretan lurra, lurraldea eta planeta ere sartzeko. Hala, elikadura osasungarria, gertukoa eta bidezkoa zaintza sistemaren funtsezko apustu gisa bistaratu nahi izan dugu eta haren oinarrian dauden emakume baserritarrak, ekoizpen agroekologikoa eta elikadura burujabetza aintzat hartzea sustatu dugu.

**2. La defensa de los Bienes Comunes,** propuesta que se teje en las últimas décadas desde diferentes luchas y movimientos sociales críticos con la imposición del capitalismo, con lemas como: "El mundo no es una mercancía". Como baserritarras es importante la "des mercantilización de los alimentos", el acceso a los Bienes Comunes o "fuentes de vida" (agua, las semillas, bosques, la tierra, el conocimiento y cuidados) al considerar que deben ser bienes accesibles y gestionados desde la mirada de lo común y no desde el mal llamado "interés general". Al pensar en el cuidado desde una mirada socioambiental analizamos que las formas actuales desde las Instituciones y en el mercado, no sólo genera precariedad y explotación de las personas y bienes naturales, sino que la vida misma está siendo deteriorada. El cuidado sostiene la vida.

**3. Los cuidados como otra forma de hacer política.** En la huelga feminista del 8M de 2019, se posicionan los cuidados en la calle y en los debates políticos, proponiendo dar absoluta prioridad a la vida y a la importancia de colectivizar las labores de cuidados. El lema es: "Queremos poner la vida en el centro frente a la violencia, la desigualdad, la precariedad, los modelos de sexualidad hegemónicos, la división sexual del trabajo, el modelo de consumo, la familia patriarcal, la jerarquía de los saberes, el racismo, el canon de belleza y todas las opresiones."

En marzo del 2023, se denuncia la mercantilización de los cuidados y se propone como alternativa "el derecho colectivo al cuidado" como responsabilidad colectiva en el sostenimiento de la vida. Se denuncia la evasión masculina y la mercantilización de los cuidados, así como el hecho de que los cuidados que sustentan la vida siguen siendo realizados por las mujeres, sobre todo, migradas y racializadas.

Desde el movimiento feminista de Euskal Herria se convoca el 30 de noviembre 2023 una huelga general para reivindicar un sistema de cuidados público y comunitario donde hemos podido sumar, como mujeres baserritarras, nuestras propuestas y posicionar una mirada de los cuidados más allá del cuidado a las personas. Incorporando así el cuidado a la tierra, al territorio y al planeta. Visibilizando la alimentación sana, cercana y justa como apuesta vital en el sistema de cuidados, y el reconocimiento a las mujeres baserritarras, al modelo de producción agroecológica y la soberanía alimentaria como la base para ello.



Gure ikuspegitik, zaintza pertsonak zaintzea baino gehiago da. Gure ustez, sistemak lurra, haziak, ura, abereak, lurraldeak eta ondasun komunak ere zaindu behar ditu. Izan ere, zaintza elikaduratik ere dator, eta ezin dugu zaintza-sistema bat antolatu ez badago elikadura osasungarria lehenesten duen sistema antolatu bat.

Kapitalaren eta agroindustriaren aurkako borroka handia eta bortitza da. Emakume baserritarrok gutxi gara horri guztiari aurre egiteko eta, hortaz, bidelagunak behar ditugu. Zaintzaren nekazaritza- eta elikadura-sistema ez da soilik ekoiztea eta eraldatzea; aitzitik, banaketa, kontsumoa, erosketa publikoak eta sukalde nagusiak ere hartzen dituen sistema da. Hortaz, gaia ikuspegi global batetik ikusi behar dugu, egunero jaten baitugu.

Zaintza-sistema baten barruan elikadura osasungarria, gertukoa, bidezkoa eta guztien eskura dagoena egon beharko litzateke.

Zaintza ez da soilik pertsonei eman behar. Lurrik, hazirik, urik edo abererik gabe ez dago bizitzarik. Hori kontuan hartzen duen sistema batek lurraldeak eta herriak biziberrituko ditu. Izan ere, horiek ondasun komunak eta komunalak dira.

Emakume baserritarraren lan erreproduktiboa eta eredu agroekologikoa aintzat hartzea etxeko lanaz harago doa. Gure ustiategietan egiten dugun lan produktiboak eta erreproduktiboak bat egiten dute gure lurraldeetako bizitza, ondasun komunak eta planeta bera mantentzeko.

Zaintza eskubide kolektibo gisa. Eta elikadura burujabetza guztion elikadura eskubide kolektibo gisa. Zaintzak eta elikadura guztiok ditugun premiak dira, bizitza ahalbidetzen dute. Beraz, horiek lortzea ez da banakako kontu bat, ardura publiko-komunitarioa baizik, ardurakidetza kontu bat. Zaintza lana, maiz, ez da ordaintzen, feminizatua dago eta ez ikusia egiten zaio. Gizarteak, bada, emakumeek egin izan dituzten zaintza-lanak gutxietsi ditu. Baserria ez da aintzat hartzen, baina baserritarrek jaten ematen digute, eta hori oso beharrezkoa da.



Desde nuestra perspectiva, el cuidado es más que el cuidado de las personas. Creemos que necesitamos un sistema que preserve también la tierra, las semillas, el agua, el ganado o animales, los territorios y los bienes comunes. El cuidado también viene de la alimentación y no podemos organizar un sistema de cuidados si no hay un sistema organizado que ponga la alimentación sana en el centro.

La lucha contra el capital y la agroindustria es grande y brutal. Las mujeres baserritarras somos muy pocas para hacer frente a todo esto y necesitamos compañeras de viaje. La agricultura del cuidado y el sistema alimentario no se limita exclusivamente a la producción y transformación, sino que es todo un sistema que incluye la distribución, el consumo, las compras públicas y los cocinas. Por lo tanto, debemos entender el tema desde una perspectiva global y holística porque comemos todos los días.

La alimentación sana, cercana, justa y para todas debería estar integrada dentro del sistema de cuidados.

El cuidado no debe estar dirigido sólo a las personas. Sin tierra, sin semilla, sin agua, sin animales, no hay vida posible. Y cómo se organiza esto, hace vivo a los territorios, pueblos. Bienes comunes y comunales.




El reconocimiento del trabajo reproductivo de la mujer baserritarra y del modelo agroecológico, va más allá de un trabajo doméstico. El trabajo productivo y reproductivo en nuestras fincas agroecológicas se juntan en pro de la sostenibilidad de la vida de nuestros territorios, bienes comunes y del planeta.

El cuidado como un derecho colectivo. Y la soberanía alimentaria como derecho colectivo a la alimentación para todas. Los cuidados y la alimentación son una necesidad de todas, hacen que la vida sea posible y lograrlos no es una cuestión individual sino una responsabilidad pública-comunitaria, una cuestión de corresponsabilidad. El trabajo de cuidados, en muchas ocasiones, es no remunerado y está feminizado e invisibilizado. La sociedad ha infravalorado los cuidados que han sido sostenidos por las mujeres. Lo rural no se valora, pero las campesinas hacen algo tan necesario como alimentarnos.

### Eta gure baserri eta proiektu agroekologikoetan, nola ulertzen ditugu zaintza-lanak?

Zaintzak ulertzeko hiru gako:

1 Ez dira emakumeen ardura bakarrik.



2 Ez dira etxean bakarrik egiten, baizik eta bizitzaren arlo guztietan eta harreman guztietan.

3 Ez dira pertsonentzat bakarrik, bizitzaren ehun konplexua mantentzeko ezinbestekoak dira.

Ez baditugu genero-desparekotasunak eta beste desparekotasun sozial batzuk gure proiektuetan lantzen harreman, banaketa eta antolakuntza modu berriak sortzeko, agroekologia naturarekin adeitsuagoa den nekazaritza mota bat besterik ez da izango, ez eredu eraldatzaile bat.

Horretarako, lehen urrats bat da emakumeok proiektu agroekologikoetan egiten dugun lana baloratzea, eta, hortaz, gure ekarpena ekonomia tradizionalaz kanpoko irizpideen arabera neurtu behar dugu. Honako arlo hauetan eragindako onurak neurtzeko kalkulagailua behar dugu: zaintzak, lurraldea, ingurumen-inpaktua murriztea, haziak zaintzea eta jakintza tradizionalak berreskuratzea. Enpleguaren zentraltasunarekin hautsi behar dugu eta gure lana eduki sozialaz bete. Horretarako, lan produktiboa eta erreproduktiboa batu bitartez lurraldea eta bizitza zaintzen ditugula bistaratu behar dugu.

Guretzat, zaintzaren ikuspegia duen agroekologia feministak ez du bakarrik **“arlo teknikoa”** (ereintza, laboreak txandatzea, uzta egitea) kontuan hartuko, **“moduak”** ere hartuko ditu. Nola hartzen ditugu erabakiak, nola banatzen ditugu lanak, nola kudeatzen ditugu lurrak, nola zaintzen dugu elkar eta gure burua, nola banatzen dugu denbora, lana, aisialdia eta atsedenaldia.

Baserritarrok badakigu bizitza mantentzeaz zeozer. Gure ekoizpen-proiektuak lurra, animaliak eta lurraldeak zaintzean oinarritzen dira. Balio hori erromantizatu edo despolitizatu gabe, uste dugu ezin dugula mundua aldatu ez badugu gure burua aldatzen. Gure proiektuetan ematen diren dinamika heteropatriarkalak identifikatu behar ditugu, kritika konstruktiboa galde gabe. Sistemak gure ekimen alternatiboak errepikatzen ditu eta etengabe jartzen gaitu kontraesanean. Kontraesan horiek lantzeak aurrera egiteko balio digu, pertsona guztiok eskubide berdinak izan ditzagun eta gizonek lan erreproduktiboak eta zaintza lanak beren gain har ditzaten.

## ¿Y en nuestros nuestros baserris y proyectos agroecológicos, cómo entendemos los cuidados?

Tres claves de partida sobre cómo entendemos los cuidados:

1 No son una responsabilidad exclusiva de las mujeres.

2 No sólo ocurren en el espacio doméstico-casa, sino en distintos ámbitos de la vida y en todas las relaciones.

3 No sólo son para/con las personas, sino indispensables para sostener la compleja trama de la vida.

Si en nuestros proyectos no se abordan las desigualdades de género y otras desigualdades sociales para crear nuevas formas de relación, distribución y organización, la agroecología será simplemente una forma de agricultura respetuosa con la naturaleza, pero no un modelo transformador.

Para ello, un primer paso es poner en valor el trabajo que realizamos las mujeres en los proyectos agroecológicos y, por tanto, deberíamos medir los aportes con otros criterios que salgan de la economía habitual. Deberíamos contar con una calculadora de beneficios sobre: cuidados, territorio, bajo impacto ambiental, cuidado de semillas y recuperación de saberes tradicionales. Deberíamos romper con la centralidad del empleo y llenar de contenido social el trabajo que hacemos, visibilizando cómo se cuidan el territorio y la vida, uniendo el trabajo productivo y reproductivo.

Para nosotras, una agroecología feminista desde la perspectiva de cuidados no solo se centrará en **"lo técnico"** (sembrar, rotar, cosechar) sino en **"los modos".** Piensa sobre cómo se reparten las decisiones y las tareas, cómo gestionar las fincas, cómo cuidar y cuidarnos, así como la gestión del tiempo, el trabajo, el ocio y el descanso.

Las baserritarras algo sabemos del sostenimiento de la vida, nuestros proyectos productivos se basan en el cuidado de la tierra, los animales y los territorios. Sin romantizar ni despolitizar este valor, consideramos que no podemos cambiar el mundo si no nos transformamos también desde dentro. Tenemos que identificar dinámicas heteropatriarcales que se den en nuestros proyectos, sin perder la crítica constructiva. Nuestras iniciativas alternativas las reproducen y el sistema nos hace entrar todo el rato en contradicciones. Verlas es el modo de avanzar para que todas las personas tengamos los mismos derechos y que ellos valoren y asuman los trabajos reproductivos y de cuidados.

Gizarte patriarkal batean bizi garela kontuan hartuta, gure proiektuetan dugun antolakuntza-kulturak horrelako balore hauek ere izango ditu: produktibitatea, arrakasta, efizientzia, emozioak eta gatazkak alde batera uztea, hierarkia, eta abar. "Ez dut denborarik", "baserriko estresa dut"... Horrelako sentsazioa dugu, baina ez dugu gure burua birpentsatzen. Hala, premiak eta egunerokoak zeregin guztiak hartuko dituzte, beti bezala.

Erakundeetan, nekazarien batzarretan eta sindikatuetan boterea nola banatzen den begiratu behar dugu, erabakiak nola hartzen diren, nolakoak diren harremanak, lanak nola banatzen diren eta zer ordutan egiten diren jarduerak, zer bistaratzen den eta nortzuk gauden. Horiek funtsezko alderdiak dira ikuspegi honetatik hausnartzeko. Beraz, hor dituzue zenbait ideia eraldatzaile praktika kolektiboetan ikuspegi feminista aplikatzeko.

Zaintza kolektiboa beharrezkoa da sarean lan egiten dugunean. Ikuspegi horretatik ere galderak sortzen zaizkigu: posible da bizitzarekin bateragarria den kolektibo bat sortzea, gaur egungo sisteman haize kontra dabilena? Nola txertatu zaintzak kontuan hartzen dituzten eguneroko praktikak? Nola eramaten ditugu horiek eremu mistoetara? Eta gure ekoizpen proiektuetara?

Eraldaketa kolektibo horretarako funtsezkoak diren zenbait urrats proposatzen ditugu:

**Hazi! Bestelako maskulinitateak proiektu agroekologikoetan**
Emakume baserritarrok, gure zereginen bitartez, zaintzak nabarmentzen dituen nekazaritza-eredu baten protagonistak izan gara. Zenbait gizonek ere bat egin dute gurekin, baina beste askok eredu horren alde egin dezaten behar dugu. Guk bezalaxe, gizonek beren burua birpentsatu eta trebatu behar dute. Aztertu behar dute sistema patriarkalak nola zeharkatzen dituen beren jarrerak, etxean eta proiektu agroekologikoetan.

Emakume baserritarrek egin dituzten eta egiten dituzten lanak nabarmentzeaz gain, beste maskulinitate batzuk behar ditugu. Estereotiporik eta indarkeriarik gabeko identitateak sortzen dituzten gizonak behar ditugu proiektu agroekologikoetan. Beren buruaren, emakumeen eta arlo publiko edo pribatuan topatzen dituzten pertsonen aurkako indarkeriarik gabeko nortasunak, alegia. Beharrezkoa da gizonek haien pribilegioak aitortzea eta boterea ez erabiltzea besteen gainetik jartzeko; matxismoari aurre egitea eta horrek harremanetan eta beren hazkuntza pertsonalean eragin dituen ondorio negatiboak aintzat hartzea. Hala, ikusi dugu garrantzitsua dela gizonen arteko eremuak sortzea, beren burua pentsatzeko eta aldaketak eragiteko; maskulinitate hegemonikoa kolokan jartzea, beren seme-alabek estereotiporik eta indarkeriarik gabeko maskulinitatea ikas dezaten.

Teniendo en cuenta que vivimos en una sociedad patriarcal, es probable que la cultura organizacional que haya dentro de nuestros proyectos, tenga valores como la productividad, el éxito, la eficacia, la invisibilización de emociones y conflictos, lo jerárquico. La "vida no me da" y tengo "stress rural", pero no sacamos tiempo para repensarnos. Las urgencias y lo cotidiano se repartirán las tareas como siempre.

En las organizaciones, agroasambladas y sindicatos podemos mirar cómo repartimos el poder, cómo funciona la toma de decisiones, cómo son las relaciones, cómo se distribuyen las tareas y en qué hora se desarrollan las actividades, cómo se maneja la visibilidad y quiénes formamos parte. Son cuestiones fundamentales para reflexionar desde esta perspectiva. Estas son algunas ideas del carácter transformador para aplicar una perspectiva feminista a las prácticas colectivas.

El cuidado colectivo nos interesa cuando caminamos en red. Desde esa perspectiva también nos surgen preguntas: ¿Es posible crear un colectivo sostenible con la vida, que viva a contracorriente del sistema actual?, ¿Cómo incorporamos prácticas cotidianas que tengan en cuenta los cuidados?, ¿Cómo los trasladamos a los espacios mixtos?, ¿Y a nuestros proyectos productivos?

Formulamos algunos pasos claves para esta transformación colectiva;

**¡Cultívate! Otras masculinidades en los proyectos agroecológicos**

Las mujeres baserritarras hemos sido protagonistas, con nuestros quehaceres, del despertar de un modelo de agricultura que manifiesta los cuidados.  Ya hay algunos hombres que se han incorporado, pero es necesario que muchos más apuesten por este modelo. Al igual que nosotras, los hombres necesitan repensarse y formarse. Revisar como les atraviesa el sistema patriarcal en sus actitudes, en los hogares y en los proyectos agroecológicos.

Visibilizar las tareas que han realizado y realizan las mujeres baserritarras tiene que ir acompañado de hablar de otras masculinidades.  Queremos proyectos agroecológicos con hombres que construyan identidades libres de estereotipos y de violencia contra sí mismos, contra las mujeres y hacia las personas con quienes interactúan en lo público o en lo privado. Reconocer sus privilegios y no utilizar el poder para imponerse sobre otros/as; oponerse al machismo y reconocer las consecuencias negativas que ha traído a las relaciones interpersonales y en su propia construcción personal. Para ello hemos visto la importancia de que se creen espacios entre hombres para pensarse y plantear cambios.  Cuestionar la masculinidad hegemónica, promoviendo que sus hijos/as/es desarrollen una masculinidad libre de estereotipos y de violencia.

**Sexu-aniztasuna baserri eremuko erronka eta zaintza gisa**

Sexu-aniztasuna eguneroko bizitzan dauden sexu-orientazioen eta genero-identitateen ugaritasuna da. Pertsonek beren sexualitatea, desioa, erotismoa, maitasuna eta maitasun praktikak modu aske eta betean bizitzeko eta onartzeko dituzten aukerak dira. Zalantzan jartzen du heteronormatibitatea edo heteroaraua, sexualitatea bizitzeko modu bakar gisa.

Bizitza duinak eta bizitzeko moduko bizitzak izan nahi ditugu baserrian. Horretarako, izan ere, garrantzitsua da adierazpen askatasuna eta aniztasunak bermatzea. Baserri eremuan, gelditzen ez den gurpila da genero eta sexu diskriminazioa. 2018an, Via Campesinak bere lehen LGBTTIQ Foroa antolatu zuen. Horretan, azpimarratu zen sexu aniztasuna eta genero diskriminazioarekin amaitzea nekazaritzako produktuen edo lurren prezio duinak aldarrikatzea bezain garrantzitsua zela.

**Indarkeriarik gabeko bizitzak**

Indarkeria matxista landa eremuan ikusten ez den errealitate bat da. Landa eremuko baldintzek (auzo harremanak, familia harremanak, generoko rolak edo arreta jasotzeko zailtasuna) osatzen duten ekosisteman, emakumeen aurkako indarkeria izaten da. Indarkeriarik gabeko bizitzak bizi ahal izateko gure bizitzak zeharkatzen dituzten indarkeria modu ugariak aintzat hartu behar ditugu. Laguntza sareak ezarri behar ditugu, eremu sozialak eraldatu, eta gure kolektiboetan indarkeria horien efektuak aitortu eta isiltasuna desnaturalizatu eta hautsi behar ditugu. Maitasun eta sexu harremanetan ere indarkeriak daude, sexu eta genero aniztasunari lotutako indarkeriak. Baina indarkeria instituzionala ere badago, eta indarkeria elikadura sistema agroindustrialean ere, lurrak, baliabideak eta lurraldeak espoliatzen direnean, lana prekarioago egiten denean, edo diru-laguntzak edo ondasunak lortzeko zailtasunak daudenean.

## Diversidad sexual como reto y cuidado en lo rural

La diversidad sexual es la gama de orientaciones sexuales e identidades de género que forma parte de la vida cotidiana. Se refiere a las posibilidades que tienen las personas de vivir y asumir su sexualidad de manera libre y plena, de expresar y asumir el deseo, el erotismo, la afectividad y las prácticas amorosas. Cuestiona la heteronormatividad como la única forma aceptada de vivir la sexualidad.

Queremos construir vidas en el campo, vivibles y dignas. En esta recampesinización que proponemos, es importarte garantizar las libertades de expresión y las diversidades. La discriminación de género y sexual en las zonas rurales es un ciclo que se perpetua. En 2018, La Vía Campesina organizó su primer Foro LGBTTIQ, donde se subrayó que la diversidad sexual y acabar con la discriminación por motivos de género son tan importantes como reivindicar unos precios dignos para los productos agrícolas o para la tierra.

## Vidas libres de violencia

Las violencias machistas en el entorno rural son una realidad invisibilizada. El papel que juegan variables del contexto rural, como las relaciones de vecindad, las relaciones familiares, la perpetuación de los roles de género o las dificultades para el acceso a la asistencia, forman parte de un ecosistema que no está libre de violencias contra las mujeres. Para poder vivir vidas libres de violencia hay que reconocer las múltiples formas de violencia que atraviesan nuestras vidas.  Establecer redes de apoyo mutuo es construir un nosotras. Transformar los espacios sociales, reconociendo los efectos de las violencias, desnaturalizando y rompiendo el silencio, es otra de las acciones que podemos generar en nuestras colectividades. Hay violencias en las relaciones afectivo-sexuales y asociadas a la diversidad sexual y de género, pero también hay violencia institucional y violencia en el sistema alimentario agroindustrial, con el expolio de la tierra y sus recursos, el territorio, la precarización de nuestro trabajo o la dificultad para acceder a los bienes y ayudas.



**Arrazakeriaren aurrean ekitea eta kultura aniztasuna errespetatzea sustatzea**

Gure jatorri eta kultura aniztasuna lantzeak ere elkar ezagutzen laguntzen digu, eta gure arteko botere harremanak eta arrazakeria[11], diskriminazioa eta esklusioa lantzeko aukera ematen digu.

Gure inguruan, gero eta emakume migratu eta arrazializatu gehiago ditugu. Gehienak soldatapeko langileak dira eta asko agroekologiaren eta elikadura burujabetzaren arloko nekazaritza-proiektuen aldekoak dira. Hortaz, gure harremanetan eta gizarte, antolakuntza eta erakunde eremuetan ematen diren arrazakeria egoerak aitortzeko eta lantzeko gaitasunak landu behar ditugu.

Gaur egun, Via Campesinak erakundeen eta migrazio-politiken arrazakeriari aurre egitera animatzen gaitu. Gainera, hausnarketa horiek iparralde globaleko antolakuntza eremuetan txertatu behar ditugu, eta gure pribilegio zuria eta gure begirada koloniala deseraikitzeko prozesuak eragin behar ditugu.

14 Arrazakeria eraikuntza ideologikoa eta soziala da eta egiturazko eta eguneroko mailan jarduten du. Arraza edo talde etniko jakin baten nagusitasuna mantentzea dakar, diskriminazioa, esklusioa eta jazarpena sustatuz. Harreman hierarkikoak ezartzen ditu, eta, horietan, nagusi den arrazak besteak menderatzen eta kontrolatzen ditu. Inoiz baino indar gehiago du gaur egun gure lurralde eta erakundeetan.

### Reaccionar ante el racismo y fortalecer el respeto a la pluriculturalidad

Abordar la diversidad de nuestros orígenes y culturas es otro aspecto clave que nos permite reconocernos, pero también trabajar las relaciones de poder intrínseca que tenemos entre nosotras y la expresión de ésta en forma de racismo[14], discriminación y exclusión.

En nuestro entorno, cada vez son más mujeres migradas y racializadas quienes son en su mayoría asalariadas y apuestan por proyectos agrarios o por impulsar la agroecología y la soberanía alimentaria, por lo que debemos generar capacidades para reconocer y abordar las situaciones de racismo que se dan tanto en nuestras relaciones personales, como en los ámbitos sociales, organizativos e institucionales.

Hoy en día, desde La Vía Campesina, también se nos invita a abordar el racismo frente a las instituciones y sus políticas migratorias, además de incorporarlo al interior de nuestros espacios y organizaciones del norte global, apostando por generar procesos para deconstruir nuestro privilegio blanco y nuestra mirada colonial.

14 El racismo es una construcción ideológica y social, que opera a nivel estructural y cotidiano. Es sostener la superioridad de una raza o grupo étnico específico, sobre los demás, promoviendo discriminación, exclusión y persecución. Impacta estableciendo relaciones jerárquicas en las cuales la raza superior ejerce dominación y control sobre las otras. Está más vigente que nunca en nuestros territorios y organizaciones.

## Agroekofeminismoaren Proposamena

Agroekofeminismoa Etxaldeko Emakumeak taldeak bultzatutako proposamen bat da, oraindik eraikitzen ari dena. Feminismoa elikadura burujabetzaz blaitu nahi du, eta elikadura burujabetza feminismoz. Esparru horretan sakondu nahi dugu, eta elikadura-sistemak betaurreko desberdinekin begiratu. Nola sustatzen da begirada baserritarra? Agrokofeminismoan honako hauek elkartzen dira: agroekologia eta elikadura burujabetza; feminismoak eta ekonomia feminista; ekologismoa; internazionalismoa eta ikuspegi kolektibo-komunitarioa.

Beste apustu politiko batzuetatik edaten duen apustu politikoa da, eta arlo komunaren, ondasun komunen eta komun erreproduktiboen garrantzia ulertzen duena. Feminismoek botere-egitura sistemikoak kolokan jartzen dituzten bezala, proposamen honek ekoizpena, banaketa, elikagaien merkaturatzea eta sukaldeen antolakuntza kontrolatzen duten botere-egiturak zalantzan jartzen ditu. Elikadura burujabetza patriarkala, arrazista eta klasista eraikitzeko arriskua dago, zapalkuntza-sistema horiek gure mundua blaitzen dutelako, eta, hain zuzen, horretan eragin nahi dugu.

Zaintzaren nekazaritzak begiak zabalarazten ditu eta prozesuak, elikagaiak, lurra eta lurraldeak zaintzen ditu. Elikadura zaintza lana da, eta elikagaiak haztea, ekoiztea, banatzea, erostea eta prestatzea eskatzen du. Horiek **zaintza lan ez ikusiak** dira, baina ezinbestekoak direla ikusten dugu gaur egun. Izan ere, pandemia garaian “ezinbesteko lan” bilakatu ziren, baina aintzatespen horrek ez zuen iraun, eta gaur bizitzarako “beharrezkoak diren lan” horiek nabarmentzeko erronka dugu berriro, ez soilik egoera puntual edo kritikoetan.



# La Propuesta Del Agroekofeminismo

El agroekofeminismo es una propuesta en construcción iniciada desde el colectivo de mujeres Etxaldeko Emakumeak. Quiere impregnar de feminismo la soberanía alimentaria y de soberanía alimentaria el feminismo. Proponemos profundizar en este marco e investigar qué pasa si miramos los sistemas alimentarios con gafas diversas ¿Cómo se nutre la mirada baserritarra? El agroekofeminismo es el lugar donde se cruzan los caminos de la agroecología y la soberanía alimentaria; los feminismos y la economía feminista; el ecologismo; el internacionalismo y la mirada colectiva-comunitaria.

Es una apuesta política que se nutre de otras apuestas políticas, así como de la importancia de lo común, los bienes comunes y los comunes reproductivos. Así como los feminismos cuestionan las estructuras sistémicas de poder que dictan las relaciones sociales, esta propuesta cuestiona las estructuras de poder que controlan la producción, la distribución, la comercialización de los alimentos y lo que ocurre en las cocinas. Existe el riesgo de construir una soberanía alimentaria patriarcal, racista, clasista porque estos sistemas de opresión impregnan nuestro mundo y ahí es donde queremos incidir.

La agricultura del cuidado abre los ojos y cuida de los procesos, los alimentos, la tierra y los territorios. La alimentación es una tarea de cuidados que implica cultivar, producir, distribuir, comprar, cocinar alimentos para nutrirnos. Son trabajos de **cuidados invisibilizados** que hoy se demuestran imprescindibles. El título de "trabajos esenciales" que trajo la pandemia no se mantuvo, y hoy tenemos el reto de poner el foco en "qué trabajos son necesarios" para la vida, sin que sea en base a situaciones puntuales y críticas.



Elikadura-sistema agroekofeministak eraikitzea:

**Emakume burujabeak:** gure gorputzen eta lurraldeen jabe, indarkeriarik gabeko bizitza duinekin.
**Ekologia sakona:** elikagaiak-natura harremana berreskuratzea, baserritarrak ez bagara ere.
**Bakarrik ezin dugu:** bizitza elkarrekin defendatzea, landatar-hiritar harremana ehuntzea eta esparru kolektiboa berreskuratzea, hau da, harremanak eta eremuak (kalea, plaza, auzolana).
**Zaintzak eta elikagaiak komun erreproduktibo gisa bistaratzea:** bizirik irauteko beharrezkoak dira.
**Elikadura desmerkantilizatzea**: elikadura-sistemaren irabazi asmoa ezabatzea eta elikadura guztion eskubide gisa ulertzea.
**Gatazka sortzea, hazteko:** erronka botatzen diogu sistemari, fokua zaintzan eta nekazaritzan eta elikaduran jarriz. Botere-harremanak birpentsatzea eta baliabideak, denborak, lanak eta eremuak birbanatzea.
**Elikadura-katea leheneratzea eta zabaltzea,** sukaldeen maila ere barne hartuz. Eremu guztiak ez dira etxeak, baina guztietan egiten da jatekoa.



Construir sistemas alimentarios agroekofeministas:

**Mujeres soberanas:** de nuestros cuerpos y territorios, con vidas dignas y sin violencia.
**Ecología profunda:** recuperar la conexión alimento-naturaleza, aunque no seamos campesinas.
**Solas no podemos:** defender la vida en común, tejer rural-urbano y recuperar lo colectivo, las relaciones y los espacios (calle, la plaza, el auzolan).
**Visibilizar los cuidados y los alimentos como comunes reproductivos:** claves para nuestra supervivencia.
**Desmercantilizar la alimentación:** eliminar el lucro del sistema alimentario y entender el alimento como derecho para todas.
**Conflictuar para crecer:** retamos al sistema, al traer la mirada de los cuidados a los agroalimentario. Supone repensar las relaciones de poder, redistribuir los recursos, los tiempos, los trabajos, los espacios.
**Reconstruir y aumentar la cadena alimentaria,** incluyendo el eslabón de las cocinas. No todos los espacios son hogares, pero en todos se cocina.



# 4. AGROEKOLOGIAREN INDAR-IDEIAK ZAINTZAREN IKUSPEGI BATETIK

**(zaintza indibidualak, komunitarioak eta publikoak)**

# ELIKADURA-SISTEMA BASERRITAR ETA FEMINISTA BATEN ALDE

**(agroekologikoa, tokikoa eta bidezkoa)**

Atal honetan, ekarpenak eta hausnarketak zaintzaren esparru desberdinen arabera antolatzeko ariketa egiten dugu. Ez du behin betiko proposamen zerrenda itxia izan nahi, izan ere, erabiltzen ditugun kategoriak ez dira estankoak eta denak gurutzatzen dira. Beraz, horien arteko lotura eta sinergia ezinbestekoa da elikadura-sistema eta ekoizpen-ereduak eraldatzeko.

## Autozaintza: ni/gu

Autozaintza, gure buruari osasun mentala, fisikoa eta emozionala emateko egiten ditugun jarduerak dira. Feminismoaren ekarpen bat da arlo pertsonala politikoa ere badela: *"ondo gaudenean, dena hobeto dabil"*.

**Gure gorputza:** gugandik hastea da zaintzaren funtsezko oinarria; atsedenerako eta aisiarako uneak utzi behar ditugu. Oro har, zaintzak kanporantz praktikatzen ditugu barrurantz baino gehiago. Erresilientzia handia dugu eta gure burua esplotatzeraino ere hel gaitezke. *"guri buruz hitz egitea zaila da, ez dut inoiz nigan pentsatzen", "batzuetan gaixotu egiten naiz, gelditu eta nire burua zaindu ahal izateko", "min daukadanean zaintzen dut nire burua"*

**Denboraz eta bizitzaz desjabetuak:** aurrekoari lotuta, erritmoa jaisteko apustua egin behar dugu, gure denboren jabe izateko, bizitza badoalako eta kontrolik ez dugulako sentsazioari aurre egiteko. Gure indarrak zertan ematen ditugun birpentsatu behar dugu. *"egunerokoa birpentsatu"*

**Autonomoak izatea arlo produktiboan eta erreproduktiboan,** gure denborak berreskuratuz; gure proiektu eta bizitzetan lanak aukeratzeko ahalmen handiagoa izatea. *"zereginak idazten hasten garenean, denbora non ematen dugun, argi ikusten da, baina idatzi behar duzu..."*

**Autokontsumoa:** autokontsumoa balioestea eta bermatzea. Autokontsumoak merkatu harremanen aurretik doa, eta horretan gaudenon elikadura-osasuna bermatzen du. Hura kontabilizatu beharra dago. *"ez da mahaitik kendu behar saltzeko"*

# 4. IDEAS FUERZA DE LA AGROECOLOGÍA DESDE UNA PERSPECTIVA DE CUIDADOS

**(individuales, comunitarios y públicos)**

# PARA UN SISTEMA DE ALIMENTACIÓN BASERRITARRA Y FEMINISTA

**(agroecológico, local y justo para todas)**

En este apartado hacemos un ejercicio de organizar los aportes y reflexiones en base a los diferentes ámbitos del cuidado, sin pretender que ésta sea una lista definitiva y cerrada de propuestas, entendiendo que las categorías que utilizamos no son estancas y que todas se entrelazan, siendo imprescindible su conexión y sinergia para transformar el sistema alimentario y los modelos productivos.

## Autocuidado: yo /nosotras



El autocuidado es el conjunto de acciones que se realizan para proporcionarnos salud mental, física y emocional. Desde los feminismos una de los aportes es que lo personal es político *“Cuando estamos bien, todo va mejor”.*

**Nuestro cuerpo:** un principio clave del cuidado es empezar por nosotras mismas al dedicar y priorizar espacios para el descanso y el ocio. En general practicamos los cuidados más hacia afuera que hacía nosotras mismas. Tenemos una capacidad de resiliencia hasta límites de auto explotación. *“hablar de nosotras es difícil, nunca pienso en mi”, “a veces me enfermo para poder parar y cuidarme”. “me cuido cuando duele”*

**Tiempos y vidas expropiadas:** ligado a lo anterior está la apuesta por decrecer los ritmos, ser dueñas de nuestros tiempos, escapar de la sensación de que la vida nos lleva sin poder tener ningún tipo de control. Repensar donde ponemos nuestras fuerzas y energías en lo cotidiano *“repensar lo cotidiano”*

**Ser autónomas en la esfera productiva y reproductiva** al disponer de nuestros tiempos, tener más elección de las tareas en nuestros proyectos y en nuestra vida. *“en cuanto empezamos a apuntar tareas, lugares donde pasábamos más tiempo se vio claro, pero tienes que apuntarlo…”*

**Autoconsumo:** poner en valor y garantizar el autoconsumo. El autoconsumo antecede a otras relaciones de mercado, garantiza la salud alimentaria de quienes estamos involucradas. Hay que poder contabilizarlo. *“no quitar de la mesa para vender”*

**Gutxiagorekin bizi:** gure burua zaintzeko gure kontsumo-ohiturak aldatu behar ditugu. Behar dugun horren kontzientzia kritikoa izan behar dugu, nagusi den kontsumismo-kultura zalantzan jarriz. Kontraesanekin ere, gutxiagorekin bizitzeak elikadura burujabetzaren proposamenarekin konektatzen gaitu. *"ikasketa praktikako prozesu bat egunerokoan, gutxiagorekin bizitzea"*

**Parte-hartzea:** emakumeen taldeetan parte hartzeko prest egon behar gara, eta gure moduak eta denborak (uzta garaiak, lan handieneko uneak, edo eguraldia) kontuan hartzen dituzten dinamikak sortu behar ditugu *"elkarrekin egoteak adorea ematen dit, gertatzen zaidana ez da pertsonala, estrukturala da"*

**Duintasuna berreskuratzea:** testuinguru geopolitikoa ulertzen badugu, badakigu dominazio sistema batean bizi garela, eta horrek bere arauak inposatzen dituela. Horretan, gure proiektu agroekologikoak, baita bazterretan kokatzen diren beste guztiak ere, arauen menpe daude eta irauteko tentsioak izaten dituzte etengabe. Produktibismoarekin eta erruarekin haustea proposatzen dugu, merkatuko balioa baztertzea. *"harrigarria da Frantziako behi esnearen sektorean hainbeste ekoizlek beren buruaz beste egiteak, ez dielako nahikoa ematen"*

**Zaintzak desfeminizatzea:** lanaren banaketa sexualaren eta emakumeon lanaldi hirukoitzaren aurka borrokatzea gure eguneroko harreman pertsonal, kolektibo eta antolakuntzakoetan. Gure inguruan ardurakidetza sustatu behar dugu. Horretarako, zereginak askatu, haur txikiak hezi eta besteek ardurak har ditzaten exijituko dugu. *"nekazariak, zaintzaileak eta aktibistak gara" "Nire kasuetan, batzuetan, buruko estresa jasanezina da"*.

**Estrategia pertsonal eta kolektiboak indarkeriari aurre egiteko**, nekazaritzako eta baserriko eremuetan.



**Vivir con menos:** cuidarnos también es transformar nuestras pautas de consumo. Tener una conciencia crítica de lo que necesitamos, cuestionando la cultura del consumismo en la que vivimos. Aún con contradicciones, vivir con menos nos conecta con la propuesta de la soberanía alimentaria. *"un proceso de aprendizaje práctico en lo cotidiano, vivir con menos".*

**Participación:** debemos permitirnos participar en grupos de mujeres y generar dinámicas donde se tengan en cuenta los modos y nuestros tiempos de la labor agroecológica para reunirse (épocas de cosecha, picos altos de trabajo o el tiempo meteorológico) *"estar juntas me da fuerza, lo que me pasa no es personal, es estructural"*

**Recuperar la dignidad:** entender el contexto geopolítico es saber que vivimos en un sistema de dominación global que impone sus reglas, donde nuestros proyectos agroecológicos, así como todos aquellos que se sitúan en los márgenes, están condicionados por esas reglas y por tanto expuestos a tensiones continuas para la supervivencia. Proponemos romper con el productivismo y la culpa, salir del valor del mercado. . *"impresiona conocer la tasa de suicidios de productores de vacuno de leche en el estado Francés porque no llegan a fin de mes"*

**Desfeminizar los cuidados:** luchar contra la división sexual del trabajo y la triple jornada de las mujeres, a lo interno de nuestras relaciones diarias, personales, colectivas, organizativas, etc. Debemos promover la corresponsabilidad en nuestros entornos, soltando tareas, educando a las /os más pequeñas/os, exigiendo la asunción de estas responsabilidades por otros. *"somos campesinas, cuidadoras y activistas"En mi caso el estrés mental en muchas ocasiones es insufrible.*

**Estrategias personales y en red para enfrentar la violencia** en espacios campesinos y rurales.



# Pertsonak, Lurra Eta Lurraldea Zaintzea

**Pertsonak zaintzea**
Nabarmendu nahi dugu emakume baserritarrok beste pertsona batzuk zaintzen ditugula, eta ez soilik gure familietan, horien egitura dena dela ere.

Lehenik, emakume bezala pertsonak zaintzeko zeregina egokitu digute. Zaintza gure gain hartzen dugu maila guztietan: behetik, haurren hazkuntzarekin, eta, aldi berean, goitik, gure nagusien zaintzarekin; eta, oro har, pertsona gaixoen edo menpekoen zaintzarekin. Gainera, etxeko eguneroko lanak egiten ditugu. Gure lanaren izaera dela eta, hau da, **"etxean"** eta **"nagusirik gabe"** lan egiten dugunez, ziurtzat ematen da familia zabaleko kideak zaintzeko denbora gehiago daukagula.

Bigarrenik, kontsumitzaileekin gertuko harremana izateko egiten dugun apustua dela eta, zaintza lana egin behar izaten dugu pertsona horiei kimikorik gabeko elikadura iraunkor eta anitza eskaintzeko. Batzuetan, zalantza eta eskaerei erantzuteko moduan egon behar dugu 24 orduz eta 7 egunez, eta denbora luzea ematen diegu harreman horiei.

Hortaz, egiten dugun guztiak zaintza lan bat eskatzen du, eta, aldi berean, hura latza izaten da, dena bateragarri egiteko zailtasunagatik. Izan ere, arlo produktiboa eta erreproduktiboa bereiztea ez da erraza, eta, baserri eremuetan, eginkizun horiei zerbitzu publiko gutxirekin aurre egin behar diegu. Gainera, gure harremanetan eta inguruan ematen den ardurakidetza faltak eta lanen banaketa desparekoak egoera larriagotzen dute.

Beraz, balio soziala, ekonomikoa, ingurumenekoa eta politikoa eman behar diogu egiten dugun nekazaritza, abeltzaintza, eraldaketa eta merkaturatze ereduari.

*"Ama gaixoa zortzi urtez zaindu dut nik bakarrik, eta, aldi berean, behiak ere zaintzen nituen. Ama zaintzeko ez nuen laguntzarik; behiak zaintzeko, ordea, lehengusuaren eta haren lagun baten laguntza nuen"*

**Lursailak, lurra, lurraldea eta elikagaiak zaintzea**
**Txandakatzean oinarritutako lanaren banaketa.** Gure proiektuetan lanak txandakatzearen aldekoak gara, espezializazioaren ordez. Horrek ezagutza handiagoa ematen digu eta lan kargak bidezko modu batean banatzea ahalbidetzen du. *"Oro har, emakumeek zaintza lanak egiten ditugu, bai ortuan, bai pertsonen zaintzari dagokionez ere. Arlo produktiboan egun osoa ematen dut lanean, eta arlo erreproduktiboko lana ere nik egiten dut"*

# Cuidado De Las Personas, Tierra Y Territorio

**Cuidado de las personas**
Queremos visibilizar y dar valor al hecho de que las mujeres baserritarras cuidamos de otras personas, no sólo de nuestras familias, sea cual sea su estructura.

En primer lugar, como mujeres se nos ha asignado el cuidado de las personas. Asumimos el cuidado en todos los niveles: por debajo, con la crianza y al mismo tiempo por arriba, el cuidado de las personas mayores; y en general, con el cuidado de las personas enfermas o dependientes. Además, sostenemos el día a día de los trabajos de la casa. Por la naturaleza de nuestro trabajo, de **trabajar en "casa" y "sin jefes"**, se da por hecho que tengamos más tiempo para el cuidado de otras personas de la familia extensa.

En segundo lugar, por nuestra apuesta por mercados de proximidad y de cercanía con las personas consumidoras, tenemos una relación directa que busca cuidar también a estas personas con una producción sin químicos, sostenible y diversa de los alimentos. En algunos casos estamos a disposición de la gente 24 horas/ 7días, y dedicamos mucho tiempo a estas relaciones.

Por tanto, el cuidado está en todo lo que hacemos, y a su vez se hace pesado por la dificultad de compatibilizarlo, de separar el ámbito productivo del reproductivo, porque debemos abordarlo con la ausencia y escasez de servicios públicos en las zonas rurales, así como la falta de corresponsabilidad y el mal reparto de tareas que se da en nuestras relaciones y entornos más personales.

Por tanto, creemos que debe darse un valor social, económico, ambiental y político al tipo de agricultura y ganadería, transformación y comercialización que hacemos.

*He cuidado de mi madre enferma y dependiente 8 años yo sola mientras cuidaba las vacas. Para el cuidado no me me apoyaban, para cuidar de las vacas, mi primo y un amigo suyo.*

**Cuidado de la tierra, el territorio y los alimentos**
**División de tareas rotatorias de trabajo.** En nuestros proyectos apostamos por rotar en las diferentes tareas, en vez de la especialización, algo que nos facilita un mayor conocimiento y la distribución de cargas de trabajo justas. *"Las mujeres en general nos encargamos de los cuidados en general, tanto de la huerta como de las personas. Cuando trabajo en el productivo estoy de sol a sol y cuando estoy en el reproductivo también lo hago yo."*

**Proiektu agroekologikoen alde teknikoa zaintzea, baina harremanak ere.** Ezinbesteko da lan guztiak bistaratzea eta ardurakidetza sustatzea. Zaintza lanak ere aintzat hartu behar ditugu gure ekoizpen proiektuetan eta lanak banatzerakoan.

**Harremanak eta proiektuetan lan egiten dutenen zaintza erdigunean jarri.** Ez bakarrik zer egiten den, baizik ere nola egiten den ere. Gure artean botere-harremanak errepikatu gabe. Horren adibide da plaza; hura konfiantzan oinarritutako harreman- eta salmenta-eremua da.

**Proiektuetan kolektibitatea eraikitzea.** Ikasi behar dugu proiektu kolektiboetan, lan produktiboez gain, harremanak landu behar direla. Horretarako elkarri lagundu behar diogu eta kritika konstruktiboa egin behar dugu.

**Gauza txikiak legitimatzea.** Gure produkzioa murrizteak eta kalitatea handitzeak errentagarritasuna handitu eta gastuak murriztu ditzake (hazitegia egitea, konposta egitea, garraio gastu gutxiago). "Gu zaindu gintuzten bezalaxe, ikasitakoa beste proiektu batzuekin partekatzea garrantzitsua da"

**Dibertsifikatzea, irauteko**. Ikusi dugu nola, kasu askotan, jarduera desberdinak izateak iraunkortasuna berma dezakeen.

**Teknika agroekologikoen alde egitea** (adibidez, permakultura). Horiek lurra eta ondasun naturalak zaintzea dute helburu, eta, horretarako kimikoak erabiltzeari uzten diote, besteak beste.

**Bizigarritasun, bideragarritasun** eta iraunkortasun irizpideak (gure bizitza, gure ekonomia eta gure planeta) gure ustiategiak eta proiektuak kudeatzeko, iraunkortasunera eta nekazaritzan pixkanaka sartzera begira. *"Ezin dugu gure bizi-kalitatea beste guztiaren menpe jarri. Ezin ditugu gure bizitza, gure astia eta gure osasuna proiektuaren arrakastaren zerbitzura jarri"*

**Konektatutako proiektuak biderkatzea,** eskala handira salto egin ordez. Hazi baino gehiago, lurraldean oinarritutako proiektu saretuak eta antolatuak nahi ditugu.

**Jakintza eta ezagutza kritikoak sortzea,** elikadura burujabetzatik eta elikadura burujabetzarako. Jakintza guztion artean eta guztiontzat sortzen duten proiektuak nahi ditugu, jardunak emandako esperientzia partekatzen dutenak.

**Ekonomia zirkularra gure jardunean,** eta lurraldeari lotuta egon dadila.

**Cuidar tanto la parte técnica como la parte relacional en los proyectos agroecológicos.** Es imprescindible impulsar la visibilización y corresponsabilidad en todos los trabajos. Los trabajos de cuidados también han de ser tenidos en cuenta en nuestros proyectos productivos y en la distribución de tareas.

**Colocar en el centro las relaciones y los cuidados de quienes trabajan en los proyectos.** No sólo qué se hace sino cómo se hace. Sin reproducir las relaciones de poder entre nosotras. Un ejemplo es el hecho de que la plaza sea un espacio natural de relaciones y de venta basado en la confianza.

**Vivir y construir la colectividad en los proyectos.** En las opciones de proyectos colectivos debemos aprender que no sólo es importante desarrollar las tareas productivas, como plantar puerros, sino también construir relaciones desde el apoyo mutuo y la crítica constructiva.

**Legitimar lo pequeño.** Disminuir nuestra producción y aumentar la rentabilidad puede llevarnos a aumentar la calidad y disminuir los gastos externos. (Preparar semilleros, compost, menos gastos de transporte.)"igual que nos cuidaron a nosotras, es importante compartir todo lo aprendido con otros proyectos"

**Diversificar para sobrevivir.** En muchos casos hemos visto cómo tener varias iniciativas generan sostenibilidad.

**Apostar por las técnicas agroecológicas,** de permacultura, etc. que tienen como apuesta el cuidado de la tierra y los bienes naturales, eliminando el uso de químicos.

**Criterios de vidavilidad, viabilidad y sostenibilidad (nuestra vida, nuestra economía y nuestro planeta)** para la gestión de nuestras fincas y proyectos tanto para la continuidad, como para las incorporaciones agrarias progresivas. *"No poner nuestra calidad de vida por debajo para que todo lo demás salga bien. No condicionar nuestra vida, nuestro tiempo, nuestra salud, para que todo el proyecto salga bien"*

**Multiplicación de proyectos conectados,** frente al salto a escala grande. Más que crecer, queremos proyectos territorializados, enredados y articulados.

**Generar saberes y conocimiento crítico** desde y para la soberanía alimentaria. Queremos proyectos que generen sabiduría para todas y que compartan la experiencia de lo practicado.

**Economía circular en nuestras prácticas** y que esté vinculada a nuestro territorio.

**Lurraldean errotutako nekazaritza eta abeltzaintza.** Klima aldaketaren aurrean, zaintzaren nekazaritzaren aldeko apustua egitea. Horretarako ekoizpen, merkaturatze eta banaketa praktika agroekologikoak erabiliko ditugu. Gure ekoizpenean eta gure kontsumoan, beste pertsona eta izaki bizidun batzuekin eta gure lurrarekin konektatzen gaituzten loturak aintzat hartzea.

**Elkar zaintzeko kultura sortzea,** eta gure ortu eta ustiategien bitartez ekosistemarekin birkonektatzea.

**Gure ereduetara moldatzen diren teknologiak hartzea.**

## Zaintza Kolektiboak Eta Lurraldean Errotutako Zaintza Komunitarioak-Antolakuntzakoak Elikadura-Sisteman (Lurraldea, Aliantzak Eta Elikadura-Sistema)

**Zaintza kolektiboak nekazarien batzarretan, erakundeetan eta sindikatuetan**
**Zaintza kolektiboko eremuak sortzea. Elkar ondo tratatzearen artea:** taldeak sortzea eta antolakuntza-aldaketa sustatzea proposatzen dugu, taldeak bideratu bitartez. Egin-kizunak banatzea, ez ikusitako lanak aipatzea, arlo emozionalari tarte politikoa ematea.

**Agroekologiaren sektorean lidergo kolektibo feministak sustatzea.**

**Komunikazioa zaintzea eta informazioa partekatzea erraztea,** botere bertikala sor eta finka dadin ekiditeko. Adostasunean eta lankidetzan oinarritutako erabakiak har-tzeko eremu kolektiboak nahi ditugu. *"Arazo bat dugu kolektibitatearekin. Ez dakigu ez entzuten, ez ulertzen, ez arrazoia ematen. Askotan, besteen ideiak txarrera hartzen ditugu eta ez dugu aurrera egiten"*

**Erakunde mistoetan matxismoari eta arrazakeriari aurre egitea,** erasoak ekiditeko protokoloekin. Desparekotasunak identifikatzea eta bistaratzea; emakumeok eremu mistoetan parte hartzeko, batzarretara joateko, hitz egiteko eta entzunak izateko aukera izan dezagun. Sindikatuetan, emakume baserritarrok egiten dugun lana aintzat hartzea, eta erabakietan dugun parte-hartzea handitzea. *"zaintza lanak batez ere emakumeok egiten ditugu, egiturazko arazo baten ondorioz. Ez da kasualitatea, jaiotzen garenetik dago ezarrita"*

**Jakintzak kolektiboki sortzea eta partekatzea/baliabideak kolektibizatzea.** Gestoriak, abokatuak, baliabideak, ezagutzak eta informazioa partekatzea proposatzen dugu, sar-gaiak erosteari eta salmentak kudeatzeari dagokienez. Antolakuntza hobetzea nahi dugu, gure saltzeko ahalmena eta negoziazio ahalmena hobetzeko. *"tribu moduko bat dut, baina ez da gauza antolatua, nik ezin dudanean izaten da"*

**Agricultura y ganadería arraigada y territorial.** Apostar por la agricultura del cuidado frente al cambio climático con prácticas agroecológicas de producción, comercialización y distribución. Reconocer los vínculos en nuestras producciones y en nuestro consumo que nos atan a otras personas, a otros seres vivos y a la tierra que habitamos.

**Construir cultura del cuidado mutuo** y retomar la conexión con el ecosistema a través de nuestras huertas y fincas.

**Incorporar tecnologías que estén adaptadas a nuestros modelos.**

## Cuidados Colectivos Y Cuidados Comunitarios-Organizativos Territorializados En El Sistema Alimentario. (Territorio, Alianzas Y Sistema Alimentario)

### Los cuidados colectivos en agroasambladas, organizaciones y sindicatos

**Generar espacios de cuidado colectivo. El arte de tratarse bien:** proponemos formar grupos y apoyar un cambio organizacional y de gestión desde la facilitación de grupos. Distribuir roles, nombrar aquellos trabajos invisibilizados, dar espacio político a lo emocional.

**Impulsar liderazgos colectivos feministas en el sector agroecológico.**

**Cuidado de la comunicación e informaciones fluidas** que eviten el desarrollo y afianzamiento del poder vertical. Queremos tener espacios de toma de decisión colectivas basadas en el consenso y la colaboración. *Tenemos un problema con la colectividad. No sabemos ni ceder, ni escuchar, ni entender. Muchas veces nos tomamos las ideas de los demás a malas, y no avanzamos.*

**Enfrentar el machismo y el racismo dentro de las organizaciones mixtas,** con protocolos anti agresiones. Detectar y hacer visibles las desigualdades. Que, como mujeres, tengamos poder para participar, asistir a reuniones, hablar y ser escuchadas en los espacios mixtos. Visibilizar en los sindicatos la labor que realizamos las mujeres baserritarras, aumentando nuestra participación en la toma de decisiones. *Las mujeres nos encargamos más de los cuidados por un problema estructural. No es una casualidad, está marcado desde que nacemos.*

**Construcción colectiva e intercambio de saberes/Colectivizar recursos.** Proponemos compartir gestorías, abogadas, recursos, conocimientos, información para compras de insumos y gestión de ventas. Estar más organizadas para aumentar la capacidad de venta y el poder de negociación. *Tengo algo parecido a una tribu, pero no es nada organizado, es más cuando no puedo….*

**Parte-hartze politikorako eremuak sortzea,** batzuk praktikoagoak eta/edo puntualagoak (auzolanak, tailerrak, trukeak, azokak…), beste batzuk teorikoagoak eta/edo eragitekoak (edukiak sortzea, parte-hartzea, prestakuntza feministak), eta beste batzuk estrukturalagoak.

**Jakintzen noranzko biko harremana nekazarien eta teknikarien artean:** Gure ezagutza herrikoia balioestea nahi dugu. Agroekologiaren eta erakundeen eta beren adituen artean tarte handia dagoela sentitzen dugu. Instituzioek eta erakundeek inbertsio handia egiten dute teknikariak edukitzeko, baina ez dugu ikusten gure ustiategiei eta proiektuei behar bezalako laguntza teknikoa eta administratiboa ematen dietenik.

**Auzolanean aritzea,** gure artean eta eskualdean, eta trukea berreskuratzea.

**Elikadura burujabetzaren arloan aritzen diren emakumeen eremuak (ez mistoak),** elkartzeko, partekatzeko, saretzeko, elkarri kontatzeko... Arnas hartzeko eta gure burua indartzeko eremu seguruak. Proiektu agroekologiko asko oso heteronormatiboak dira eta ez dira oso erakargarriak emakumeentzat.

**Baserritarrez baserritar.** Gure artean laguntza sareak osatu nahi ditugu. Nekazari bat baino hoberik ez beste nekazari bat gidatzeko. “Orain bi emakume gabiltza ortuan eta gure artean eta gure burua hobeto zaintzen saiatzen gara”

**Mugimendu feminista, ekologista eta internazionalistarekin antolatzea.** Baserriko eta hiriko errealitateak hurbiltzeko, bistaratzeko eta konektatzeko, gure proposamenak indartzeko esparru gisa.

**Nazioarteko mailan antolatzea.** Beste lurralde batzuetako lagunekin konektatu nahi dugu. Argi daukagu elikadura burujabetzaren aldeko borrokak tokiko, eskualdeko eta munduko mailak lotzen dituela. Antolakuntza hori ahalbidetzen duten eremuak indartzea, Via Campesinaren bitartez.

**Akademiaren edo Unibertsitatearen eta gure proiektu agroekologikoen arteko zubiak ezartzea.** Ekimen hauek parte hartzekoak izatea nahi dugu, gure egoera, lehentasun, denbora eta eskaeren arabera.

**Construir múltiples espacios de participación política,** algunos más prácticos y/o puntuales (auzolanak, talleres, intercambios, mercados…), otros más teóricos y/o de incidencia (como la generación de contenidos, participación, formaciones feministas) y otros más estructurales.

**Diálogo de saberes bidireccional entre agricultoras y técnicas:** queremos que se revalorice nuestro conocimiento popular. Sentimos una gran separación entre lo agroecológico, la institución y sus expertas. Existe mucha inversión en personal técnico en instituciones y organizaciones que no vemos reflejado en el acompañamiento técnico, administrativo a nuestras producciones y proyectos.

**Vivir el auzolan** entre nosotras y en la comarca, así como recuperar el trueque y el intercambio.

**Espacios de mujeres vinculadas a la soberanía alimentaria (no mixtos)** donde nos juntemos para compartir, tejer, contarnos… espacios de seguridad donde podamos respirar y fortalecernos. Muchos proyectos agroecológicos que son muy heteronormativos y son proyectos poco sugerentes para algunas mujeres.

**Campesina a campesina.** Queremos tejer redes de apoyo entre nosotras. Nadie como una agricultora para guiar a otra. Ahora estamos dos mujeres en la huerta e intentamos cuidarnos más a nosotras mismas.

**Articularnos con el movimiento feminista, ecologista, internacionalista.** Como una vía para acercar, visibilizar y conectar realidades rurales, urbanas, marcos para fortalecer nuestras propuestas.

**Articularnos a nivel internacional.** Queremos conectarnos con otras de otros territorios. Vemos claro que la lucha por la soberanía alimentaria vincula lo local, regional y global. Fortalecer espacios de La Vía Campesina que permitan esta articulación.

**Facilitar puentes entre mundo académico y universitario con el mundo agroecológico y nuestros proyectos.** Queremos que estas iniciativas se desarrollen de una forma participativa y en base a nuestras realidades, prioridades, tiempos y demandas.

**Zaintza komunitarioak, antolakuntzakoak eta lurraldean errotuak elikadura-sisteman**

Elikadura-sistemaren eraldaketan, elikadura-katearen maila guztietarako proposamenak landu behar ditugu, sukaldeetarako ere (guretzat, hori laugarren maila da). Horretarako, ulertu behar dugu elikadura ez dela baserritarren ardura bakarrik, gizarte osoarena baizik. Baserriaren eta hiriaren arteko zubiak ezartzen jarraitu nahi dugu, sareak ehuntzen (elkarteak, gizarte-mugimenduak, GKEak); Euskal Herrian zaintza-sistema publiko eta komunitario baten alde egiteko, trantsizio agroekofeminista baten bitartez.



**Los cuidados comunitarios-organizativos territorializados en el sistema alimentario**

El cambio por el sistema alimentario tiene que abordar propuestas para todos los eslabones de la cadena alimentaria, incluida la cocina como el cuarto eslabón que proponemos. Para ello hay que entender que la alimentación no es sólo responsabilidad del campesinado, sino de toda la sociedad. Queremos seguir construyendo puentes entre baserris, entre lo rural y la ciudad, tejer redes (asociaciones, movimientos sociales, ONGs) para apoyar un sistema público y comunitario de cuidados en Euskal Herria desde la transición agroekofeminista.



Hona hemen proposamen batzuk:

**1. Lurraldean oinarritutako banaketa eta merkaturatzea: zirkuitu laburrak eta askotariko kanalak.**

**Salmenta zuzenaren hobesten dugu.** Tokiko merkatuak berreskuratzea eta sustatzea, kontsumo taldeak eta baserrian bertan egiten den salmenta zuzena mantentzea eta sustatzea. Baserritarren eta kontsumitzaileen arteko harremanetan bitartekari bat edo bi baino gehiago ez izatea nahi dugu. Horiek dendak, plataformak, online katalogoak eta abar izan daitezke.

**Baserria eta hiria hurbiltzea.** Gaur egun, gure gizartean, elikagaiengandik urrun gaude, eta ez dugu horiek ekoizteko prozesua ezagutzen. Zirkuitu laburrek, aipatu bezala, prozesu kontzienteago eta arduratsuagoekin konektatzen gaituzte. Bazterretan dauden lanak bistaratzen dira. *“herriei lotuta ez dagoen proiektu bakanik ez”, “herriak eta auzoak senidetzea, harremana lurraldean errotzen da”*

**Banaketa-kate handien proposamenekin kritikoa izatea eta haien birlokalizazio prozesuari aurrea hartzea.** Adibidez, ekoizpen jasangarriarekin lotutako 0 km proposamena. Zirkuitu laburren bitartez konfiantza harremana sortu nahi dugu, ekoizleak eta haien ustiategiak ezagutzeko.

**Banaketa eremuak biderkatzea.** Etxe indibidual eta kolektiboez gain, garrantzitsua da eguneko zentroetara, ikastetxeetara eta ospitaletara heltzea, eta eremu horiek zabaltzea, erosketa publikoak tokiko ekoizpen agroekologikoetara bideratuz. Merkaturatze-bideak dibertsifikatzeak proiektuen iraunkortasuna bermatzen du eta kontsumitzaileekiko menpekotasuna murrizten du. *“hirietan gero eta tokiko elikagai osasungarri gehiago kontsumitzea nahi dugu”*

**Bilketa eta banaketa gune kolektiboak sortu behar ditugu.** Forma juridiko desberdinak erabiltzeko aukera nahi dugu, gure produktuak banatzeko; eta udal azpiegiturak, horiek merkaturatzeko.

**Bitartekariekiko menpekotasuna ekiditea.**

**Tokiko merkatuak funtsezko azpiegitura eta jarduera gisa ikustea.** Eta elikagaiak hornitzen dituzten pertsonak aintzat hartzea.

Algunas de nuestras propuestas:

**1. Distribución y comercialización territorializada: circuitos cortos y diversidad de canales.**

**Apostamos por la venta directa,** recuperar y potenciar los mercados locales, mantener y promover grupos de consumo y ventas directas en la finca. Buscamos que la relación entre baserritarras y consumidoras no tenga más de 1 o 2 intermediarias. Pueden ser tiendas, plataformas, catálogos online, etc.

**Acercamiento entre lo rural y lo urbano.** Actualmente, en nuestra sociedad, solemos estar alejadas de lo que comemos y desconocemos el proceso de los alimentos. Los circuitos cortos, ya mencionados, nos conectan con procesos más conscientes y cuidados. Se hacen visibles los trabajos que están en los márgenes. *"ni proyectos champiñón que estén desvinculados de los pueblos"*. *"Hermanar pueblos a barrios, se hace más territorial."*

**Ser críticas con las propuestas de las grandes cadenas de distribución y adelantarnos a su proceso de relocalización.** Un ejemplo es la propuesta de KM0 ligada a una producción sostenible. Desde los circuitos cortos buscamos generar una relación de confianza, donde se conozca a las personas productoras y su finca.

**Multiplicar espacios de distribución.** Además de los hogares individuales y colectivos, es importante llegar a centros de día, escuelas y hospitales, y ampliar estos espacios promoviendo que las compras públicas sean dirigidas a producciones baserritarras agroecológicas cercanas. La diversificación de los espacios de comercialización da sostenibilidad a los proyectos y evita la dependencia con respecto a las personas consumidoras. *"queremos que cada vez se consuman alimentos diversos sanos y locales en la ciudades"*

**Debemos crear centros de acopio y distribución colectivos.** Acceso a formas jurídicas diversas para la distribución de nuestros productos y locales municipales para su comercialización.

**Evitar la dependencia de intermediarios.**

**Promover que los mercados locales sean considerados infraestructuras o actividades esenciales.** Y las personas proveedoras de alimentos sean reconocidas.

**Balioa adierazten duen etiketatzea,** parte-hartzeko ziurtagiriak eta kontsumitzaileekiko konfiantza harremanak. *“taldeko jendeak sinetsi egiten du nire barazkiak naturalak direla, jakina. Aspalditik ezagutzen dugu elkar, nire ortua bisitatu dute, eta pozoirik gabeko barazkien zaporea desberdina da; tomateak tomate zaporea du”*

Eredu baserritar agroekologikoaren etiketetan, elikagaiek pozoirik edo pestizidarik ez dutela ziurtatzeaz gain, beste ingurumen eta gizarte irizpide batzuk ere adierazi behar ditugu. Baserriko ustiategi txiki batean produzitutakoaren aintzatespen eta balioespen hori ezin dira bakarrik irizpide teknikoen eta tramite burokratikoen menpe egon. Aitzitik, etiketak pertsonen zerbitzura egon behar dira, eta ez dute oztopo administratiborik eragin behar.

## 2. Hornikuntzako eta erosketa publiko arduratsuko egiturak sortzea.

Elikagaien banaketa eta merkaturatzea hobetu beharra dagoela ikusi dugu, gure lurraldean erosketa agroekologiko eta baserritarrak sustatzeko.

Banaketak eta eskuragarritasunak eragina dute, baina baita kontsumo arduratsuak ere. Horregatik, elikadura-sistemak lurraldean errotu behar dira, eta Administrazio Publikoek eginkizun aktiboa izan behar dute horretan.

**Etsaia barruan badago.** Kapitalismoak nahiak eragiten ditu etengabe, etorkizunean beteko direlako promesarekin. Agronegozioak, bere aldetik, berehalako kontsumo-eredu apetatsu batean hezten gaitu, horren inpakturik kontuan hartu gabe. Horren ondorioz, tomatea “behar” dugu neguan, banana eta papaia edozein momentutan, eta gainera, horiek forma, kolore eta itxura jakin bat izan behar dute.

**Desikastea eta gure gustua zalantzan jartzea.** Oso aldaketa sakonak dira, eta gizarte osoa sartu behar dugu tartean. Gure egunerokoan lagun dezakegu, eta merezi duela ulertu behar dugu, ongizateagatik eta osasunagatik, eta gure artean zaintzeko eta lurra eta gure planeta zaintzeko.

**Elikadura-sistemetan eta elikaduran trebatzea** eskola, institutu eta ikastetxeetan. Belaunaldi berriek eredu baserritar agroekologikoarekin kontaktua berreskura dezaten nahi dugu, eta horren arabera produzitutako elikagaien garrantzia aintzat har dezaten.

**Valorar los etiquetados de valor,** los sellos participativos y las relaciones de confianza con las personas consumidoras. *"la gente del grupo de consumo me cree cuando digo que mis verduras son naturales, lógico. Nos conocemos desde hace tiempo, han venido a la huerta y el sabor de las verduras sin veneno es distinto. El tomate sabe a tomate"*.

En las etiquetas del modelo agroecológico y campesino, no sólo debemos certificar que los alimentos no tienen venenos ni pesticidas sino visualizar otros criterios ambientales y sociales en su elaboración. Este reconocimiento y puesta en valor de lo producido por una finca baserritarra pequeña, no puede ir encorsetado en unos criterios solamente técnicos e insuperables pruebas burocráticas. Los etiquetados deben estar al servicio de las personas y no generar pesadas cargas administrativas.

### 2. Creación de estructuras de abastecimiento, compras públicas y consumo responsable.

Hemos visto que es imprescindible abordar cómo mejorar la distribución y comercialización de los alimentos para así fomentar las compras agroecológicas y baserritarras en nuestro territorio.

Influye la distribución y la accesibilidad, pero también el consumo responsable. Por eso, es importante que los sistemas alimentarios sean territorializados y que las Administraciones Públicas de ese territorio tengan un papel activo en ello.

**Si el enemigo está dentro.** El capitalismo genera deseos constantemente con la promesa de una satisfacción futura. El agronegocio nos educa en un modelo de consumo inmediato y caprichoso sin tener en cuenta ningún impacto. Esto justifica que "necesites" tomate en invierno, plátano o papaya cuando quieras, y que, además, éstos tengan determinada forma, color y apariencia.

**Desaprender y cuestionar nuestro paladar y nuestro gusto.** Son cambios muy profundos en los que involucrar a toda la sociedad. Desde nuestro día a día, podemos apoyar y concienciarnos de que merece la pena, por bienestar y salud, por cuidarnos entre nosotras y por cuidar la tierra y el planeta en el que vivimos.

**Educar en los sistemas alimentarios y la alimentación** en nuestras escuelas, institutos y centros educativos para que las nuevas generaciones retomen el contacto y valoren la importancia de la producción de alimentos desde el modelo agroecológico y baserritarra.

**Elikaduraren arloko gizarte segurantza,** elikadura osasungarria gizarte osoarentzat bermatzeko, egoera ahulean dauden kolektiboekin hasita. Europako hainbat nekazaritza-erakunderen proposamen horri jarraituz, eskubide hori Euskal Herrian ere bermatzeko eskatzen dugu, osasun eta hezkuntza eskubideak bezalaxe.

**Erosketa publikoak sustatzea,** elikagai osasungarriak, tokikoak, bidezkoak eta jasangarriak lehenesten dituztenak. Hala, irizpide agroekofeministak erabiltzen dituen erosketa publikoko programa bat diseinatzea eta sortzea eskatzen dugu.

**Jantoki agroekologikoak.** Zenbait pertsonak ezin dituzte elikagai agroekologikoak jan baliabide faltagatik, hain zuzen, elikadura pobreziako arazo bat dagoelako. Gaur egun, elikagaien merkantilizazioak produktu prozesatu ugari sortu ditu. Guk ez ditugu horiek elikagaitzat hartzen, baina oso prezio txikian merkaturatzen dituzte eta ez dute haien nutrizio balioa edo osasunean duten eragina kontuan hartzen. Feministok uste dugu bizitzaren eguneroko zaintzaren zenbait dimentsio ezin direla kanpora atera. Halaber, horiek ez dira bakarka kudeatu behar, baizik eta kolektiboki eta beste modu batzuetara. Elikadura, hau da, elikagaiak haztea, jatekoa egitea eta jatea, funtsezko premia da, eta, arlo horretan, oso desparekotasun handiak daude.

**Elikagaiak guztiontzat eta ordain solidarioak baserritarrentzat.** Elkartasunaren kontzeptuak lurra, ingurumena, osasuna, datozen belaunaldiak eta askoz gehiago har ditzake. Bestelako merkaturatze-eredu batzuk ezagutu ditugu. Horietan komunitateak funtsezko eginkizuna du, izan ere, ordain desberdinak onartzen ditu: lehenik, ordain solidarioa, hau da, ekoizleek bidezko ordaina jasotzen dute eta kontsumitzaileek “ahal/nahi dutena” ordaintzen dute, prezio tarte batean balio-eskala mugikor batekin. Diru-sarrera txikienak dituzten pertsonei diru kopuru txikiena ordaintzeko aukera ematen die, eta diru-sarrera handiagoa duten pertsonek kopuru handiagoak ordainduko dute. Bigarrenik, eskaintza txanda: ekoizleek proiektuak behar duen guztizkoa adierazten dute, aurrekontu batekin. Gero kontsumitzaile bakoitzak, modu anonimoan, nahi duen kopurua ematen du, behar den kopurua (hau da, proiektuaren kostua) lortu arte. Hirugarrenik, ordaindu nahi duzuna: kideek beren finantza gaitasunen eta proiektua laguntzeko gogoen arabera ordain dezakete. Ekoizleek “ordainketarako argibideak” eman ditzakete edo gutxieneko kopuru bat jar dezakete.

**Seguridad social de la alimentación,** empezando por los colectivos vulnerables, para garantizar una alimentación sana y saludable para toda la sociedad. Retomando esta propuesta de colectivos de campesinado europeo, apostamos por garantizar este derecho también en Euskal Herria, así como la salud y la educación.

**Incentivar las compras públicas** de alimentos sanos, cercanos, justos y sostenibles. La creación y diseño de programa de compras públicas con criterios agroekofeministas.

**Comedores agroecológicos.** Hay gente que no puede comer agroecológico por carencia de recursos, porque hay un problema de pobreza alimentaria. Hoy en día, la mercantilización de los alimentos ha generado una serie de productos procesados, que no consideramos como alimentos, pero que se comercializan a precios bajos y sin filtro sobre su valor nutricional y su impacto en la salud. Desde el feminismo, decimos que hay dimensiones del cuidado cotidiano de la vida que no debemos externalizar, ni tampoco gestionar solas, sino hacerlo de una manera más colectiva y de otros modos. La alimentación, cultivar, cocinar y comer es una de las fundamentales. En la dimensión de la cocina es donde se mantiene una mayor desigualdad.

**Alimento para todas y pagos solidarios para las baserritarras.** El concepto de solidaridad puede incluir la tierra, el medio ambiente, la salud, las generaciones futuras y mucho más. Hemos encontrado modelos de comercialización diferentes donde la comunidad juega un papel crucial, ya que aceptan diferentes tipos de pagos: el primero, solidario: las personas productoras obtienen un salario justo y las personas consumidoras pueden pagar "lo que quieran/puedan" con una escala de valores móvil dentro de un rango de precios. Permite a las personas con ingresos más bajos pagar la cantidad mínima y a las personas con ingresos más altos a pagar cantidades mayores. El segundo, ronda de ofertas: las personas productoras comparten por adelantado el total anual necesario para el proyecto, junto a un presupuesto. Luego, cada persona consumidora paga de forma anónima la cantidad que quiere aportar, hasta alcanzar la tarifa necesaria, es decir, el coste anual del proyecto. El tercero, paga lo que quieras: los miembros pueden pagar dependiendo de sus capacidades financieras y su voluntad de contribuir al proyecto. Las personas productoras siempre pueden dar "indicaciones de pago" o establecer un precio mínimo.

### 3. Bestelako sukaldeak: etxea, eskola jantokiak eta jantoki sozialak, egoitzak eta ospitaleak

Zaintzaren ikuspegitik, honako hauei buruz hausnartu behar dugu: nortzuk egiten dute elikagaiak prestatzeko lana, zer nolako platerak prestatzen ditugu, zein da gure erosketa saskiaren inpaktu ekologikoa eta soziala, eta nolakoa da elikagaiak eskuratzeko aukera, pertsonen egoera sozioekonomikoaren arabera.

**Janaria banaka/familian/kolektiboan prestatzeak** eragina du nahi dugun elikadura-sistema lortzeko. Eguneko lehen ekintza politikoa gosaltzea da, baina nork prestatzen du gosaria? Norentzat? Noiz eta non erosi du? Nork ekoiztu du? Hala elikaduraren inguruko lan erreproduktiboen dimentsioan sartzen gara, eta horiek azpimarratu nahi ditugu. Horregatik elikadura-kateari laugarren maila bat gehitzen diogu. *"frijiturik gabe, iraultzarik ez"*

**Eguneroko ohiturak eraldatzea elikadura-sistema eraldatzea da.** Konfinamenduan zehar, ezin ginenez irten, gertukoa eta egunerokoa baloratzen ikasi genuen. Jatekoa egiteko eta beste modu batera elikatzeko astia geneukan. Janaria prestatzea ez da denbora galtzea, gure egunerokoan txertatu behar dugun funtsezko eginkizuna da, gure osasunean eta ingurumenean duen eragina kontuan hartuz. Elikadura berrantolatzea bizi-denborak berreskuratzea da.

**Elikadura ez da supermerkatuan hasten, eta ez da etxera heltzean bukatzen.** Eraldaketa ez da saskia elikagai ekologikoz betetzea soilik. Nork kudeatzen du? Nork egiten du jatekoa? Nork garbitzen? Izan ere, ez dago "ekoizten dutenak" vs "kontsumitzen dutenak", elikadura ziklo oso bat dago. Horretan, ekoizten, banatzen, hornitzen, janaria prestatzen, jaten, garbitzen, birziklatzen eta abar egiten da. Ikusten ez diren lanen aldarrikapen honetan lotura sendoa egon daiteke hiriko eta baserriko feminismoen artean.

**Sukaldeak, jendea, auzoak eta herriak baserriarekin lotzea.** Aipatu dugun bezala, elikaduraren esparruan funtsezkoa da urtaroekin birkonektatzea eta sasoiko elikagaiak ezagutzea, lurraren erritmoarekin bat kontsumitu ahal izateko.

### 3. Cocinas diversas: hogares, comedores escolares y sociales, residencias y hospitales

Desde la perspectiva de los cuidados, tenemos que reflexionar sobre quiénes hacen todas las tareas de la preparación de los alimentos, qué tipo de platos preparamos, cuál es el impacto eco social de nuestra cesta de la compra y cómo es el acceso a los alimentos, según la situación socioeconómica de las personas.

**Cocinar de manera individual/ familiar/colectiva** influye en el sistema alimentario que queremos. El primer acto político del día es desayunar, pero ¿quién prepara el desayuno?, ¿para quién?, ¿cuándo fue a comprarlo y dónde?, ¿quién lo cultivó?. Esto abre la dimensión de las tareas reproductiva de la alimentación y las queremos visibilizar en la cadena alimentaria con un cuarto eslabón. *"sin sofrito no hay revolución"*

**Transformar los modos de vida cotidianos es transformar el sistema alimentario.** Durante el confinamiento, al no poder salir, valoramos lo cercano y cotidiano. Teníamos tiempo para cocinar y alimentarnos de otra manera. Cocinar no es tiempo perdido, es una tarea de vida que debemos incorporar en nuestro día a día valorando el impacto que tiene en nuestra salud y medio ambiente. Reorganizar la alimentación es reconstruir los tiempos de vida.

**La alimentación no empieza en el súper ni se acaba llegando a casa.** La transformación no es sólo llenar la cesta de alimentos ecológicos. ¿Quién gestiona, cocina y limpia? No hay "unas que producen" Vs "otras que consumen", sino que hay todo un ciclo alimentario que implica producir, distribuir, aprovisionarse, cocinar, comer, limpiar, reciclar… En esta reivindicación de trabajos invisibilizados puede haber una conexión fuerte entre el feminismo urbano y el feminismo rural.

**Recampesinizar las cocinas, gentes, barrios y pueblos.** Como ya hemos comentado, en el ámbito de la alimentación es clave retomar la conexión con el ciclo de las estaciones y conocer los alimentos de temporada para consumir de acuerdo a estos ritmos de la tierra.



## Politika Publikoko Eskaerak:

Politika publikoek gure eskubideak sustatu eta ezarri beharko lituzkete, eta ez soilik diru-laguntza emaileak izan. Bestela, gizarteak behar dituen elikagaien ekoizpenean dugun eragiletasuna eta protagonismoa ezkutatzen dute. Administrazio publikoek lurraldean errotutako elikadura-sistema iraunkorren aldeko apustua egin dezaten nahi dugu, bizitza eta zaintzak erdigunean jarriz. Hala, baserri eremuan zaintza-zerbitzu publikoak ezar ditzaten eskatzen diegu, gure proiektuen iraupena bermatzeko, jendea nekazaritzan has dadin sustatzeko eta baserri eremu bizia eta iraunkorra lortzeko. *“rol horiek ezabatzeko eta horietatik sortzen diren desparekotasunei aurre egiteko politika publikoak behar ditugu”*

**Elikagaiak aurrekontuen bihotzean kokatzea.** Nekazaritza- eta elikadura-sistema zuzentzen duten politika publikoak aldatu nahi ditugu, eta lurraldean errotutako eredu baserritar batera bideratutako politikak nahi ditugu. Hau da, elikadura-sistemaren lau mailetara zuzendutako neurriak ezartzen dituen politika-, arau- eta aurrekontu-esparrua behar dugu.

**Herriek beren nekazaritza- eta elikadura-politika zehazteko eskubidea izan dezaten sustatzea.** Elikadura eredu iraunkor baten aldeko ekimenak tokian sustatuko dituzten prozesu munizipalistak bultzatzea proposatzen dugu.

**Guztion elikadura eskubidea bermatzea,** elikaduraren arloko gizarte segurantza bezalako proposamenen eta eskola jantokietarako, ospitaletarako edo elikagai bankuetarako erosketa publikoen bitartez.

**Ondasun komunak ez merkantilizatzea edo patentatzea.** Ondasun komunak (haziak, lurra, ura, jakintzak...) eskubide bezala zaintzea aldarrikatzen dugu, baita GEOak (Genetikoki Eraldatutako Organismoak) kontrolatzeko araudietan atzera ez egitea eta horiek desagertzeko lan egitea ere. Glifosatorik eta beste kimiko kutsatzailerik gabeko lurraldeak izan nahi ditugu. Halaber, euskal erakunde publikoei elikagai sintetikoen ekoizpena eta merkaturatzea debekatzea eskatzen diegu.

**Politika publikoek eredu baserritar agroekologiko baten aldeko trantsizioa lehenestea eskatzen dugu.** Tokiko ekoizpen agroekologikoa sustatzea eta babestea nahi dugu, pertsona guztientzat elikagai osasungarriak bermatzeko; eta bioaniztasuna eta baliabide naturalak gordetzea.

## Demandas Para Las Politicas Públicas:



Creemos que las políticas públicas deben promover e implementar nuestros derechos y no sólo generarse cómo proveedoras de ayudas que invisibilizan nuestra actoría y papel protagónico en la generación de alimentos para toda la sociedad. Queremos que las Administraciones Públicas apuesten por sistemas alimentarios sostenibles y territorializados que pongan la vida y el cuidado en el centro, y por la implantación de servicios públicos rurales de cuidados para las mujeres baserritarras que permita la sostenibilidad de nuestros proyectos, la incorporación de nuevas personas al medio agrario y un mundo rural vivo y sostenible. *"necesitamos políticas públicas vayan encaminadas a no perpetuar estos roles y a combatir las desigualdades que de ellos se derivan."*

**Situar los alimentos en el corazón de los presupuestos.** Queremos cambiar las políticas públicas que gobiernan nuestro sistema agrario y alimentario, centrándolas hacia un modelo territorializado y baserritarra. Un marco político, normativo y presupuestario, que implemente medidas para los cuatro eslabones del sistema alimentario.

**Apoyar el derecho de los pueblos a definir su política agraria alimentaria.** Proponemos fomentar procesos municipalistas que impulsen iniciativas facilitadoras para el cambio al modelo alimentario sostenible desde lo local.

**Garantizar el derecho a la alimentación para todas,** a través de propuestas como la seguridad social alimentaria, las compras públicas para comedores escolares, hospitales, bancos de alimentos, etc.

**No mercantilizar los bienes comunes ni patentarlos.** Queremos reclamar el derecho y cuidado de los bienes comunes (semillas, tierra, aguas, saberes…), no retroceder en las normativas de control de los OGM (Organismos Genéticamente Modificados) y promover su desaparición. Tener territorios libres de glifosato y otros químicos contaminantes. Solicitamos a las instituciones vascas prohibir la producción y comercialización de alimentos sintéticos.

**Instamos que las políticas públicas apoyen y prioricen una transición hacia un modelo agroecológico baserritarra.** Que se promueva y respalde la producción agroecológica local que asegure alimentos sanos para todas las personas, conservando la biodiversidad y los recursos naturales.

**Nekazarien eginkizun profesionalaren eta ekonomikoaren aintzatespena sustatzea, eredu agroekologikoa zaintza-sektore gisa hartuta.** Baserriarekin lotutako sektoreetan enplegu publikoa sortu behar dela uste dugu. Hori zaintza lanak bermatzera bideratu beharko dute: elikagaien ekoizpena, mendiak abeltzaintza txikiaren bitartez mantentzea... Neurri horiek eta aurrerago agertuko direnak, bizitzaren iraunkortasuna bermatzen duten sektoreen garapen profesionalerako baldintza duinak sortu nahi dituzte. Sektore batzuk aintzat hartzen dira, hala nola hezkuntza edo osasuna, baina beste asko ez, esate baterako, haurren zaintza, nagusien zaintza, etxerako zaintza eta menpeko pertsonei zuzendutako arreta edota parkeen, lorategien, basoen, ortuen eta abarren mantentze-lanak... *“NPBak zaintza-lanak jasotzea eska dezakegu”*

**Emakume baserritarrek eta eredu agroekologikoak betetzen duten funtzio integrala balioesteko formulak bilatzea, lan baldintzak hobetze aldera:**

**Nekazaritzako autonomoentzat eredu malgua eta/edo nekazaritzarako tarifa finkoa ezartzea:** errealitatera egokitzen direnak eta hainbat tarte dituztenak. Hala, ustiategi edo proiektu bakoitzaren baldintzen arabera, pertsona kopurura, denborara eta abarrera moldatuko dira. Horrek lan produktiboa eta zaintza lana edo lan erreproduktiboa bateragarri egiteko aukera emango luke.

**Ohiz kanpoko eta baldintzarik gabeko erregularizazioa** landan lan egiten duten pertsona migranteentzat. Gainera, nekazaritzaren sektorean lan egin nahi duten pertsonei erraztasunak ematea beharrezkoa da.

**Soldata duinak bermatzea:** gutxienez Lanbide arteko Gutxieneko Soldata bezainbeste diru-sarrerak daudela bermatu nahi dugu. Horretarako, proiektu agroekologikoen diru-sarrerak oinarrizko errenta batekin osatzea proposatzen dugu. Diru-laguntza lurra lantzeari lotuta egon beharko da, eta ez lurraren jabe izatera. *“sektorean sartu diren emakume askok bikotearekin egiten dute. Bikoteak kanpoan lan egiten du eta soldata ona dauka, eta gure ekarpena gehigarri moduko bat da, eta, horrela, zaintzen dugu. Baina hori ez dago guztiz ondo”*

**Lurraldea mantentzeko lanak diruz ordaintzea.** Baserria, lursailak eta, azken batean, lurraldea zaintzeko lanak ordain publikoa jaso behar luke, funtsezko sektorea baikara eta eragin positiboa baitugu ingurumen, gizarte, ekonomia eta lurralde mailan.

**NPB (Nekazaritza Politika Bateratua) ustiategi agroekologiko txikietara moldatzea.** Izan ere horiek hektareako ordainketa-sistematik kanpo geratzen dira. Beste aukera bat bigarren zutabean nekazaritzako eta ingurumeneko laguntza bat ezartzea izan daiteke. Horrek urtean kopuru finko bat edo azalerako kopuru bat eman dezake. Horrela, ustiategi txikiak eta dibertsifikatuak ere (barazkiak, frutak edo abere kopuru txikiak dituztenak eta zirkuitu laburretan saltzen dutenak) NPBren parte direla esan ahal izango dugu.

**Promover el reconocimiento profesional y económico de la función del campesinado desde un modelo agroecológico como sector de cuidados.** Creemos que debe crearse empleo público en sectores relacionados con el campo, que permita garantizar tareas de cuidado, desde la producción de alimentos al mantenimiento de los montes, a través de la pequeña ganadería. Estas medidas y las que aparecen en el siguiente párrafo, buscan crear condiciones dignas para el desarrollo profesional de los sectores que aportan en la sostenibilidad de la vida. Hay sectores reconocidos como educación y salud, pero hay muchos sectores no reconocidos, como cuidados infantiles, cuidados de personas adultas, ayuda a domicilio y atención a la dependencia, cuidado de parques, jardines, bosques, huertas, etc. *También se podría pedir que los cuidados estarían contemplados en la PAC.*

**Buscar fórmulas que valoren la función integral que desarrollan las mujeres baserritarras y el modelo agroecológico para, mejorar las condiciones del trabajo:**

**Crear la figura de autónomo/a agrario/a flexible y/o una tarifa plana agraria:** adaptadas a la realidad y a tramos diferentes. De forma que en función de la diversidad de situaciones de cada finca o proyecto se pueda adaptar al número de personas, la temporalidad, etc. Algo que nos permitiría compatibilizar tiempos de cuidados y trabajo reproductivo.

**Regularización extraordinaria e incondicional** a las personas migrantes que trabajan en el campo. A la vez que sería necesaria una incorporación fácil a aquellas que quieran unirse al sector agroecológico.

**Garantizar sueldos dignos:** queremos garantizar que haya al menos ingresos equivalentes al Salario Mínimo Interprofesional. Proponemos complementar con una Renta básica agraria para los proyectos agroecológicos, por tanto, vincular esta ayuda a trabajar la tierra no a la tenencia. *mujeres que han entrado en el sector lo hacen con pareja, que trabaja fuera y gana un buen sueldo, y el nuestro es como un plus, y así cuidamos. Y eso no está del todo bien.*

**Reconocer económicamente las labores de mantenimiento del territorio.** Las tareas de preservación y cuidado en el caserío, fincas y territorios, deben recibir una retribución pública, en la medida en que somos sector esencial con un impacto positivo a nivel ecológico, social, económico y territorial.

**Adaptar la PAC (Política Agraria Común) a las pequeñas fincas agroecológicas,** que se quedan fuera del sistema de pagos por hectárea. Una opción sería una ayuda agroambiental dentro del segundo pilar que permita un pago a tanto alzado anual o un pago por hectárea que realmente permita a las granjas diversificadas con huerta, fruta, pequeños animales en extensivo, y que muchas veces comercializan en circuitos cortos, poder decir que “también” son parte de la PAC.

**Gure sektoreak aurrera egiteko belaunaldi arteko erreleboa behar dugu.** Hala, politika publikoak ezinbestekoak dira:

> **Funtsezko jarduera horretan hastea sustatzeko**. Gazteez gain, 40 urtetik gorako emakumeak, 50 urtetik gorako pertsonak, iraupen luzeko langabeak, pertsona migranteak, etab.
>
> **Antolakuntza-eredu berriak txertatzen laguntzeko,** hala nola kolektiboak, familiaz kanpoko ereduak, inbertsio gutxiagoko erreleboak, bizigarritasun/bideragarritasun/iraunkortasun irizpideak.
>
> **Lurra eskuratzea errazteko:** lurraldean errotutako elikadura-sistemei lotutako lur banku publikoak eta elikadura-sistema publikoak.
>
> **Emakume baserritarron lana balioesteko/Kontakizun eta imajinario berriak sortzeko.** Idealizatu gabe, nekazaritzako lanaren alderdi positiboak erakustea, lurrarekin lan egin nahi duen jendea topatzeko. Baserritarrak behar ditugu, ez eskulan merkea.

**Antolakuntza eredu eta eredu juridiko berriak sustatzea:** kolektiboak, komunitarioak edo sareak. Txikiak eta dibertsifikatuak. Baserria eta nekazaritza ez da lehen bezala antolatzen; baserriari ez dio familia zabalak eusten. Beraz, kolektibitate modu berrietara moldatu behar gara. Kolektibitatea funtsezkoa da, jarduera horretan ematen den lan kargagatik; eta are gehiago zaintza lanak eta lan erreproduktiboak sartzen baditugu.

**Titulartasun partekatua gaur egungo egoerara moldatzea.** Izan ere, gaur egungo ekoizpen-ekimen asko ez dira bikote edo familia harremanetan oinarritzen.

**Lantegi kolektiboak:** elikagaien eraldaketa ere proiektu agroekologikoaren dibertsifikazio-estrategiaren parte gisa hartu behar dugu. Izan ere, maiz, hori da proiektuaren iraunkortasuna edo bideragarritasuna bermatzen duena. Lege malguagoak egin behar dira, proiektu indibidual, familiar edo kolektiboetara lotutakoak.

**Tokiko elikagai osasungarrien eta bidezkoen banaketaren eta erosketa publikoaren aldeko legeak sustatzea.** Gaur egun, legeak eredu agroindustrialean oinarritzen dira, eta hori aldatu eta moldatu beharra dago. Hurbiltasunean eta agroekologian oinarritutako elikadura-sistema berriak nahi baditugu, legeak aldatu eta dumpinga ahalbidetzen duten diru-laguntzak kendu behar ditugu. Gaur egun, bost multinazionalek hartzen dute oinarrizko produktu horien merkatu osoa, eta, jasotzen dituzten diru-laguntzei esker, produktu horiek oso prezio baxuan saltzen dituzte. Ondorioz, tokiko elikagaiek ez dute lekurik.

**Para lograr que nuestro sector perviva necesitamos relevo generacional,** donde las políticas públicas son indispensables, para:

> **Fomentar la incorporación a una actividad esencial.** Incorporando no sólo a l@s jóvenes sino también a mujeres de más de 40, mayores de 50, personas paradas larga duración, población migrante etc.
>
> **Facilitar las incorporaciones de nuevos modelos organizativos,** cómo pueden ser colectivas, en modelos extra-familiares, relevos con menos inversiones y progresivas, criterios de vidavilidad/viabilidad/sostenibilidad.
>
> **Facilitar el acceso a la tierra:** bancos de tierras vinculados a sistemas alimentarios territorializados municipales y sistemas alimentarios públicos.
>
> **Valorizar el trabajo de las mujeres baserritarras/Creación de nuevos relatos e imaginarios.** Sin idealizar, mostrar lo positivo para encontrar gente que quiere meter las manos en la tierra para cultivar comida. Necesitamos baserritarras no mano de obra barata.

**Apoyar nuevos modelos organizativos-jurídicos:** colectivos, comunitarios o en red. Pequeños y diversificados. El baserri y lo agro no se organiza como hace años. No está sostenido por la familia extensa, por lo que debemos adaptarnos a nuevas formas donde la colectividad es clave por la carga de trabajo que supone y más, si incorporamos los cuidados y tareas reproductivas en nuestros proyectos.

**Adaptar la titularidad compartida** a los tiempos actuales donde las iniciativas productivas no tienen como base el vínculo de pareja y/o familiar.

**Obradores colectivos:** debe reconocerse e incluir la transformación como diversificación del proyecto agroecológico, ya que nos garantiza en muchos casos la sostenibilidad y viabilidad de los proyectos. Debe crearse una legislación no solo flexibilizada, sino vinculada a proyectos individuales, familiares o colectivos.

**Fomentar legislación para la distribución y las compras públicas de alimentos locales, sanos y justos.** Actualmente la legislación tiene una mirada y una base en función del modelo agroindustrial, que debe cambiarse y adaptarse. Si queremos nuevos sistemas alimentarios basados en la cercanía y lo agroecológico, debe modificarse y deben finalizar las subvenciones que permiten el dumping. Hoy en día, 5 multinacionales concentran el comercio de productos que se consideran de base y, con las subvenciones que reciben, comercializan estos productos a tan bajo precio, que hace que los alimentos locales no tengan hueco.

**“Terrorismo burokratikoa” gelditu eta arauak proiektu txikietara moldatzea.** Aipatu dugun bezala, eginkizun administratiboek proiektu txikientzat jasanezina den lan karga eragiten dute; izan ere, araudia bera da proiektu txiki eta handientzat. Hortaz, araudiak moldatu beharra dago; eta tramiteak egiteko aholkularitza indartzea proposatzen dugu, bai aurrez aurrekoa bai online bidezkoa.

**Euskal Herriaren elikadura burujabetza eta energia burujabetza erronka osagarri gisa.** Gure ustez, elikadura burujabetza eta energia burujabetza elkarrekin doaz. Hau da, energia berriztagarriak nahi ditugu, baina ez horrela. Trantsizio energetiko bat desazkundearekin eta ikuspegi agroekofeministarekin batera egin behar da. Ez ditugu parke eolikoak eta eguzki ortuak nahi nekazaritzako lursailetan, inguru naturaletan eta basoetan.

**Baserri eremuetan indarkeria matxistako egoeretarako protokoloak, baliabideak eta aurrekontuak ezartzea.**

**Landa eremuko herri txikietan zerbitzu publiko orokorrak ezarri behar dituzte.** Haur-eskolak, eskolak, osasun zentroak, garraio publiko hobeak, aisialdiko jarduerak, denda txikien eta udal merkatuen bitartez tokiko ekonomia sustatzea, osasun zerbitzuak, etab.

**Landa eremuetan zaintza-zerbitzu publiko-komunitarioak sortzea,** emakume baserritarrok, nagusiok edo gaixook ditugun zaintza premiak betetzeko. Azken batean, pertsona guztiak zaintzeaz ari gara, eskubide kolektibo gisa: zaintza sare komunitarioak, auzolanak, jantoki sozialak, etab.

Beraz, gure apustua honako hau da: emakumeek mantendu eta bideratu duten eredu baserritarra berreskuratzea, eta horri agroekofeminismoaren ikuspegi eraldatzaileak gehitzea. Horrela, gure ekoizpen-proiektu agroekologikoei inspirazioa eman nahi diegu; zaintzak eta bizitza erdigunean jartzeko, pertsonen eta belaunaldien arteko ardurakidetza sustatzeko. Azken batean, elikadura zaintzaren funtsezko zatitzat ulertzen duen eta aintzat hartzen duen gizarte bat nahi dugu, baserrietako ekoizpena planetaren iraunkortasunaren eta zaintzaren bihotzean kokatzen duen gizartea, alegia.



**Parar el "terrorismo burocrático" y adaptar las normativas para los proyectos pequeños.** Cómo ya comentamos, las exigencias administrativas suponen una carga de tiempo insostenible para los proyectos pequeños. Existe una normativa igual para pequeños que para grandes productores. Deben adaptarse las normativas. Y proponemos fortalecer el asesoramiento para la tramitación de papeles, ayudas, tanto online como presencial por parte de la Administración.

**Soberanía alimentaria y la soberanía energética de Euskal Herria como retos compatibles.** Creemos que la soberanía alimentaria va ligada a la soberanía energética. Queremos energías renovables sí, pero no así. Una transición energética debe ir acompañada de un decrecimiento y de la mirada agroekofeminista. No queremos parques eólicos y huertos solares sin ton ni son en terrenos agrícolas, naturales y forestales.

**Implantar protocolos, recursos y presupuestos para situaciones de violencia machista en zonas rurales.**

**Deben implementarse servicios públicos generales en los pequeños pueblos rurales,** con escuelas para txikis, centros de salud, mejoras en el transporte público, apoyar actividades de ocio, generar economía local a través de tiendas y mercados municipales, servicios sanitarios…etc.

**Crear servicios públicos-comunitarios de cuidado en las zonas rurales,** que cubran las necesidades de cuidados que tenemos las mujeres baserritarras, las personas mayores y /o enfermas. En definitiva, para el cuidado de todas las personas como un derecho colectivo: desde redes comunitarias de cuidados, auzolanak, comedores sociales vecinales, etc.

Nuestra apuesta es retomar el modelo baserritarra que las mujeres han mantenido y liderado e incorporar las miradas transformadoras del agroekofeminismo, para inspirar nuestros nuevos proyectos productivos agroecológicos, espacios donde los cuidados y la vida están en el centro, donde existe corresponsabilidad entre todas las personas y todas las generaciones. Y todo esto es parte de una sociedad que valora y entiende la alimentación como parte esencial de los cuidados, y que sitúa la producción baserritarra en el corazón de la sostenibilidad y cuidado del planeta.



# 5. BIBLIOGRAFÍA


Herrero, Yayo. 2012. Perspectivas ecofeministas para la construcción de una economía compatible con una vida buena. Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la economía solidaria, feminista y ecológica, Reas-EUSKADI.

Begiristain, M. eta Álvarez, I. (2019). Feminismo para los sistemas alimentarios y la agroecología. Revista Iberoamericana De Economía Solidaria E Innovación Socio ecológica.

Álvarez, I. (2017). Ciudades y Agroecología en el Estado Español. Del huerto urbano al Pacto de Milán. Encuentros, desencuentros y vacíos de las iniciativas agroecológicas en el contexto urbano. XI Máster Oficial de Agroecología: Un enfoque para la sustentabilidad rural masterraren MALa.

Álvarez, I. eta Begiristain, M. (2018). La soberanía alimentaria y la agroecología: Practica desde Ya, Baserritik Mundura-Del Caserío al Mundo unibertsitate hedapeneko ikastaroaren 10. gida, Hegoa Institutuak (UPV/EHU) eta EHNE-Bizkaiak antolatuta.

Bosch, Anna, Cristina Carrasco eta Elena Grau. 2005. Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo. La historia cuenta. Del crecimiento económico al desarrollo humano sostenible. Espainia: El viejo Topo.

Abrazar la diversidad rural: Géneros y sexualidades en el movimiento campesino. Via Campesinaren Europako Koordinazioa eta Sindicato Labrego Galego.

Carrasco, Cristina. 2009. Mujeres, sostenibilidad y deuda social. Revista de Educación.

Pérez-Orozco, Amaia. 2014. Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida. Madril: Traficantes de sueños.

Negro, Amaia. Mujeres baserritarras. Identidad en crisis 2010.

Siliprandi, Emma eta Gloria Zuluaga (koord.). 2014. Género, agroecología y soberanía alimentaria. Perspectivas ecofeministas. Bartzelona: Icaria.

Svampa, Maristella. 2015. Feminismos del Sur y ecofeminismo. Nueva Sociedad 256: 127-131.

Zuluaga, Gloria, Georgina Catacora eta Emma Siliprandi (koord.). 2018. Agroecología en Femenino. Reflexiones a partir de nuestras experiencias. Bolivia: SOCLA.

# 5. BIBLIOGRAFÍA

Herrero, Yayo. 2012. Perspectivas ecofeministas para la construcción de una economía compatible con una vida buena. Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la economía solidaria, feminista y ecológica, Reas-EUSKADI, pp. 55-64.

Begiristain, M., & Álvarez, I. (2019). Feminismo para los sistemas alimentarios y la agroecología. Revista Iberoamericana De Economía Solidaria E Innovación Socio ecológica, 2(1). https://doi.org/10.33776/riesise.v2i1.3658

Álvarez, I. (2017). Ciudades y Agroecología en el Estado Español. Del huerto urbano al Pacto de Milán. Encuentros, desencuentros y vacíos de las iniciativas agroecológicas en el contexto urbano. TFM del XI Máster Oficial de Agroecología: Un enfoque para la sustentabilidad rural.

Álvarez, I. y Begiristain, M. (2018). La soberanía alimentaria y la agroecología: Practica desde Ya, Guía 10 del curso de extensión universitaria Baserritik Mundura-Del Caserío al Mundo, organizado por Hegoa Institutoa (UPVEHU) y EHNE-Bizkaia.

Bosch, Anna, Cristina Carrasco y Elena Grau. 2005. Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo. La historia cuenta. Del crecimiento económico al desarrollo humano sostenible. España: El viejo Topo.
Abrazar la diversidad rural: Géneros y sexualidades en el movimiento campesino. Coordinadora Europea Vía Campesina y el Sindicato Labrego Galego.

Carrasco, Cristina. 2009. Mujeres, sostenibilidad y deuda social. Revista de Educación. Núm. Extraordinario: 169- 191.

Pérez-Orozco, Amaia. 2014. Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida. Madrid: Traficantes de sueños.

Negro, Amaia. Mujeres baserritarras. Identidad en crisis 2010.

Siliprandi, Emma y Gloria Zuluaga (Coords). 2014. Género, agroecología y soberanía alimentaria. Perspectivas ecofeministas. Barcelona: Icaria.

Svampa, Maristella. 2015. Feminismos del Sur y ecofeminismo. Nueva Sociedad 256: 127-131.

Zuluaga, Gloria, Georgina Catacora y Emma Siliprandi (coords). 2018. Agroecología en Femenino. Reflexiones a partir de nuestras experiencias. Bolivia: SOCLA.



## Zaintza Lanei Buruzko Hausnarketa Kolektiboak

## Reflexiones Colectivas Sobre Los Cuidados



BIZKAIA
ehne
euskal herriko
nekazarien elkartasuna

GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO